

kitto!

811 zkia. 2012-VI-21

ASTEKARIA



Hamen datoz
SANJUANAK!!!

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99


AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean




ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF AMOSTEGI



- * *Fisioterapia*
- * *Min-Unitatea*
- * *Kirol medikuntza*
- * *Osteopatia*
- * *Perineologia*
- * *Ama izateko prestakuntza*



R.P.S. 28/07

Muzategi 2 behe (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegi.com - www.crf-amostegi.com

J. Etxeberria, 13
Tfnoa. 943 700 230



R.P.S. 5508



Burbuila batean ez bizitzeko



ARGITARATZAILEA:
 ...eta kitto! Euskara Elkarteak
HELBIDEA:
 Urkizu, 11 - solairuartea
 20600 Eibar
TELEFONOAK:
 943 20 67 76 / 943 20 09 18
FAXA:
 943 20 28 72
Astekariaren E-MAILak:
 erredakzioa@etakitto.com
 komunikabideak@etakitto.com
 publizitatea@etakitto.com
Elkartearen E-MAILak:
 elkartea@etakitto.com
 normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu
 Maider Aranberri
 Ekhi Belar
 Jose Luis Gorostegi
 Silbia Hernandez
 Koldo Mitxelena
ADMINISTRAZIOA:
 Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA:
 Koldo Mitxelena
ERREDAKZIO-BURUA:
 Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
 Jose Luis Gorostegi
ARGAZKI ARLOA:
 Leire Iturbe, E. Belar
 eta S. Hernandez
HIZKUNTZA ARDURA:
 Juan Andres Argoitia
 Maider Aranberri
PUBLIZITATEA:
 Itziar Albizu
 Belen Ulazia
Tfnoa: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA:
 Maialen Belaustegi
BANAKETA-ARDURADUNA:
 Ainhoa Luz
TIRADA:
 8.100 ale
INPRIMATEGLIA:
 GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A:
 ...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA:
 SS/430/92
 ISSN: 1132 - 1679
 ("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen al-
 dizkarian adierazitako esanen
 eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IRUEIN.- Irun, irutan egin. Erderazko 'hilar'. "Ahaztu ziran irueiñ eta irueiñak gu gaztiak giñanerako".

IRUIN.- Sokagilea. Erderazko 'cordelero'. "Iruñ erdeldun bat, Txantxa Zelaixan sokagintzan egitten ebana".

IRULEIÑ.- Txirikordak egin. Gaztelerazko 'trenzar'. "Iruleiñ uliegaz, kopetia ataratzeko".

IRURI.- Ikatz hautsa. Gaztelerazko 'cisco'. "Iurixa jirau biarra dogu, pabonua eitteko".

IRUSTA.- Sekula belarra. Gaztelerazko 'trébol'. "Irusta gure amandriagandiko abizena gure aittak".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienezko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astean, ohiko astekaria kaleratu beharrean, azken urtiotan atera dugun **BIXAMONA**ren zenbaki berri bat jasoko duzue zuen buzoietan. Ale hori ere, barixakuan izan beharrean, eguenean, **hilaren 28an** helduko zaizue. Sanjuanetako argazkiekin egindako alearen ostean, hurrengokoa uztailaren 6an kaleratuko dugu.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Irabaziak izateari baino, lanpostuei eusteari garrantzi handiagoa ematen zaio kooperatibetan. Esaterako, azken bost urteotan salmentak %10 jaitsi ziren arren, enplegua %6 igo zen. Fagorreko langileek onartu berri dute soldata %7 jaitea, inor kaleratu baino lehen. 2003tik Elkarlanen sortutako kooperatiba guztietatik, %8 bakarrik desagertu dira: beste enprekin alderatuta, oso kopuru txikia. Horregatik eusten diote hobeto krisiari, gainera luzaroan eutsiz euren jardunari"


(Javier Goienetxea, Konfekoeko presidentea)

"3D-n egin nuen pelikula bakarraren ondotik, sei egin ditut eta ez dut berriri erabili; askotan azkarrago noalako geldirik egonik beste guztiak korrika baino. Dirua eta denbora ematen badidazu, ez nuke beste pelikularik egingo 3D-n. Alde batetik, sarreraren salmenta jaitsi egin delako; bestetik, eta garrantzitsuena, ikuslearen esperientzia gisa, zineak istorio paralelo eta bakarra sortu behar duelako. 3D-n pelikula porno bat egin dezakezu, baina ez erromantiko bat. 3D-n dena dira efektuak"

(Werner Herzog, zine zuzendaria)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Eguena 21

17.00-20.00.- Umiendako puzgarrixak eta zezen mekanikua, Astixaren eskutik. Untzaga Plazan.

18.00-20.00.- Umiendako berbenia, Arno Djarekin. Untzaga Plazan.

20.30.- Eibarko Ballet taldiaren emanaldixa. Coliseo Antzokixan.

Barixakua 22

19.00.- Umiendako antzerkixa: "Libertia" antzezlan, Hortzmuga konpaiñiaren eskutik. Untzaga Plazan.

20.30.- Sostoa Abesbatzaren San Juan kontzertua: "Pablo Sorozabal, musikua bidegurutzian". Sarrerria: 3 euro. Coliseo Antzokixan.

22.30.- Kontzertua Emepebo5t eta O Sonoro Maxin taldiekin. Jarraixan, Jon Cid eta Oier Aginaga Dj-xak. Untzaga Plazan.

Txosnak: Mojito Jaia

18.30.- Triki-kalejiria, Untzagatik bosnetara (Errebalgo parkiñera).

19.00.- Txosnen irekiera.


21.00.- Batukei, Eibarko batukada feministia.

23.00.- Kontzertuak: Kokein eta Anai Arrebak.

Ballet taldea.



Emepebo5t.



- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINUAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKETA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anita 12
Telefona. 943 201 930
 fonta.amana@gmail.com

EGOITZA NAGUSIA
 Bidebarriete 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erreusketako labori
 Egokien (lignu poligonari)
 Partikular: sarko eta osaguri anker zerbitzuak
 Koroak - Eskalak - Urteurrenko ekitaldiak
 Eskal Hant osoko ospitaleko hantzen zerbitzuak
 Nazio eta Nazioarteko itzulidat

Mugica Ehorzketa
 (Guztira 12.000)

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Zapatua 23 -SAN SUAN BEZPERIA-

- 10.30.-** Santuari zapixa ipiñiko detse. Ospitalian.
- 11.00.-** San Juan Zortzikua, Usartza Txistulari Bandaren eskutik, musikak lagunduta. Untzagan hasitta.
- 12.00.-** Kuadrillak Untzagan bildu eta kalejiran Urkizurairño juango dira. GASTE alkartiak antolautu.
- 13.00.-** Lizarrako Dultzaineruerei ongietorrixa, Estaziñuan, eta Untzagarairño kalejiria, Udaltzatzak, Casino Artista Eibarrés-en, Goruntz Abesbatzaren, Asola-Berri alkartiaren eta Armerixa Eskolako ordezkariak eta kuadrillak lagunduta.
- 13.30.-** Pregoia eta jaixeri hasieria emoteko bupinazua. Udaltzatzeko balkoittik.
- 13.45.-** Sanjuanetako kartel lehiaketia eta alkohol larregi edatiaren kontrako pegatina lehiaketia irabazi dabeneri sarixa emotia. Udaltzatzan.
- 15.00.-** San Juan Tiro Txapelketa Nagusixa, usakumiekin. Antolatzaillia: Sociedad de Tiro al Vuelo. Arratzen.
- 17.30.-** Kuadrillak Untzagan bildu eta kalejiria zezenplazarairño, fanfarriak lagunduta.
- 18.00.-** Kuadrillen arteko jokuak. Zezenplazan.
- 19.00.-** Salbea, Parrokixako Abesbatzarekin. San Andres elizan.
- 19.00.-** Debako erraldoi eta buruhaundixen kalejiria, Lizarrako Dultzaineruak lagunduta. Urkizutik urtenda.
- 19.00.-** Kalejiria, Irulitxa fanfarriarekin. Untzaga Plazan hasitta.
- 19.30.-** Kale antzerkixa, Trapu Zaharra taldiaren eskutik. Antzezlana: "Vuelta&Vuelta".
- 23.00-04.00.-** Berbenia Lisker taldiarekin. Untzagan.
- 23.00.-** San Juan Sua eta Eibarko Dantza Garaikide taldiaren emanaldixa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eta Queimada, As Burgas Galiziako Ebiaren ardurapian. Untzagan.
- 00.00.-** San Juan Kantua eta, jarraixan, Danborradaren Alardia. Untzagan.

Txosnak Gazte Eguna

- 13.00.-** Dultzaineruak, txosnetatik hasitta.
- 13.30.-** Trikipoteua. Untzagatik hasitta.
- 14.30.-** Herri bazkarixa.
- 17.00.-** Jokuak.
- 19.00.-** Akodas Bozine Elektrotzaranga.
- 23.00.-** San Juan Sua + antzerkixa.
- 23.30.-** Kontzertuak: Karma eta Feos Pero Majos.



Dultzaineroak eta bupinazoa.



Herri-bazkaria.




San Juan Sua.

Domeka 24 -SAN SUAN EGUNA-

- 07.30.-** Kalejiria Lizarrako Dultzaineruekin. Zezenplazara juan-otorrixa eta goiz-erestia.
- 08.00.-** Enbolatuak, Marqués de Sakako bigantxekin. Zezenplazan.
- 11.00.-** San Juan Sorben bedeinkatzeko mezia. Azittaingo elizan.
- 12.00.-** Kantutako Mezia, Parrokixako Abesbatzarekin. San Andres Parrokixan.
- 12.45.-** Ertzantzaren Musika Bandaren San Juan Kontzertua. Untzaga Plazan.
- 17.00.-** Dantza emanaldixa, Lacasiun Eibarko Andra Latinoamerikanuen Alkartiarene eskutik. Untzagan.
- 19.00.-** Umien Danborradiaren urteeria, Oria eta Ustekabe fanfarriekin. Urkizutik.
- 19.00.-** Kalejiria, Balkanetako Fanfareshukar bandiarekin. Untzagatik hasitta.
- 20.30.-** Umien Pregoia, Umien Danborradako Danbor Nagusixak irakorritta eta Alardia. Untzagan.
- 23.30.-** Soka Dantzia, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldiarekin. Untzaga Plazan.
- 00.00.-** Suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanarekin.
- 00.15-04.00.-** Berbenia Nueva Alaska orkestiarekin. Untzaga Plazan.

Txosnak

- 18.00.-** Janari-lehiaketia.
- 20.00.-** Bertso Merixendia: Miren Amuriza, Beñat Ugartebea eta Mikel Arrillaga bertsolarixekin.
- 23.00.-** Karaokia + koko-jantzi jaixa.



Enbolatuak



Suzko erroberak

"Alzolako iturria zure lanpostuan"




ALZOLA
ura

Balenzategui, S.A.
Bainuetxeko Zumardia, 1
20860 Alzola (Elgoibar)
Tel. 943 740 288
Faxa 943 743 557

www.alzola.com

GURIA

ELECTRICIDAD

MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK




Metzuria, 3 - Pabellon 7 - Toll.: 943 70 00 95 - Fax: 943 82 00 37
www.electricidadgurria.com - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Astelehena 25 -SAN SUAN TXIKI-

- 07.30.-** Kalejiria Lizarrako Dultzaineruekin eta goiz-erestia. Zezenplazara.
- 08.00.-** Enbolauak Marqués de Sakako bigantekin. Zezenplazan.
- 11.30.-** San Juan XIX Marmittako Lehiaketia. Untzaga Plazan.
- 18.00.-** "Munstro koloreak" umiendako parkia. Untzaga Plazan.
- 19.00.-** Kalejiria, Lizarrako Dultzaineruekin. Urkizutik Untzagaraiño.
- 19.00.-** "Ohitura onak" umiendako antzerkixa, Pabín eta Potxín taldiaren eskutik. Untzaga Plazan.
- 20.30.-** Cielito Musika Bandiari eta Usartza Txistulari Bandiari omenaldixa, Denon Sahatsa alkartian. Antolatzaillia: Auzokoak.
- 22.00.-** Voces y Cuerdas taldiaren kontzertua. Untzaga Plazan.
- 23.15.-** Berbenia antziñoako doiñuekin, Cielito Musika Bandiaren eskutik. Untzagan.
- 23.30.-** Suzko erroberak, Pirotecnia Astondoaren eskutik.



Marmitako lehiaketia.



Pabín eta Potxín.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 fax: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 **ZULOAGATARREN, 7**

San Andres
Gozotegia

• **tartak**
• **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...

IFAR KALE 8
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

Eguena 28

- 17.00.-** Toka eta Igel-toka txapelketia.
17.00.- Umiendako txokolatè-jana.
17.30.- Umiendako jokuak (lapikuak apurtzen, zaku-lasterketia..).
19.00.- Gorriti eta bere aberiak. Karmen kaleko parkian. Antolatzaillia: Beheko Tokixa.

Barixakua 29

- 12.00.-** Mezia, abesbatzak lagunduta. Karmengo Amaren elizan.
12.45.- Toka eta igel-toka txapelketako irabazleri sarixa banatzia.
13.00.- Piskolabisa.
19.00.- Voces y Cuerdas taldiaren emanaldixa.
20.30.- Kaleetan Kantuz taldiaren emanaldixa.
21.00.- Piskolabisa.
21.30.- Dantzaldixa, Tukan taldiarekin. Karmen kaleko parkian. Antolatzaillia: Beheko Tokixa.
- 20.00.-** Itoiz Suite, Itoiz taldiaren arrakasten adaptaziño sinfonikua, Juan Carlos Pérez eta Bilboko Orkestra Sinfonikuaren eskutik, Armerixa Eskoliaren Mendeurrena ospatzeko. Sarrerria: 14 euro alde zurretik (www.ticketea.com) eta 20 euro leihatillan. Coliseo Antzokixan.
23.00.- Cielito Musika Bandiaren gabeko kontzertua. Untzaga Plazan.

Zapatua 30

- 16.00.-** Eibarko Hiria XXVIII. Xake joko azkarrak, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportibua. Untzaga Plazan.

Domeka 1


- 11.00.-** San Pedroko mezia eta konjurua, Akondia basarrixan.
14.30.- San Juan III Waterpolo Txapelketia. Antolatzaillia: Urbat I.K.E. Orbea Kiroldegixan.



Gorritiren animalixak.



Voces y Cuerdas.




Itoiz Suite.



RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo
Ainhoa Zulueta
Susana Sierra
Maitane G. Iñiguez
DOKTOREAK

Invisalign ortodontzia ikusezina



**DESKONTU
HANDIAK**

Uztailaren 30era arte

Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

ETORRI ETA
IKUSIKO
DUZU!!!

%50

%20


%15

%30

**Gurean
bai
jaia!**

**15 urte
betetzen
ditugu!**

**ESKERRIK ASKO
GUZTIOI ETA...
ONDO PASA
SANJUANAK!**




EGO GAIN, 2
Tel/Fax: 943 70 14 08

**Ezagutu
azken puntako
teknologia
AUDIFONOetan**

**EGUZKIRAKO
betaurrekoak
ume eta
helduentzat**



**GRADUATUTAKO
betaurrekoak**

Jaietarako abiada hartzen hasita gaude



BIHAR BARIKAKUAN HASI ETA ASTELENEAN SAN JUAN TXIKI EGUNA AGURTU BITARTEAN EKITALDIZ BETETAKO ASTEBURU LUZEA daukagu aurretik, San Juan jaiak bete-betean ospatzeko egunak izango dira-eta. Hala ere, parrandarako gogoia izan duenak etxean ez gertzeko aitzakia erraz aurkituko zuen aurretik ere, atzean laga dugun asteburuan sanjuanetarako abiada hartzen joateko moduko ekitaldi mordoia egin ziren-eta: barixaku arratsaldean Kezka dantza eskolako 150 bat ikaslek eta dantza taldeko 30 dantzarik erakustaldi bikaina egin zuten Untzagan, Dantzari Egunaren harira. Gauean, berriaz, Astelena frontoiak Boxeo Gaua hartu zuen eta kirolei lotutako txapelketa eta bestelakoek za-

patuan zein domekan jarraipena izan zuten: Arraten mustra-txakurrekin probintzia mailako txapelketa, San Juan XXI. Tiro Txapelketa, arku-tiroa, squash-a, duatloia, Ipuru Gimnasia Erritmikoko 200 neskek Untzagan eskaintako erakustaldia, herri-kirolak... gusto guztiak asetzeko moduko eskaintza, duda barik. Eta hortik aparte, ia urte osoan erabili barik egoten den zezenplazak gurean lehenengoz egin den Euskal Western Jaialdia, aurtengo jaietako lehenengo enbolatuak eta erre-kortadoreen ikuskizuna hartu zituen. Eta sanjuanetako kontzertu-zerrenda Amparo Sánchez-ek eta haren emanaldia amaitu eta jarraian saioa eskaintzeari ekin zion Arno DJ-ak zabaldu zuten za-patu gauean.





Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Belbatakie Funeuskadi Eibar
Ostoa, 77

Bulegoa:
Gastamendi, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El poder de la familia

- Eibar - Beroetta - Bilibio - Berrakalde - Leiza - Getxo - Gernika -
- Portugalete - Santurtzi - Galdakao - Sorbe -
- Espinosa de los Monteros -


65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGOA

Maidar Lopez Etxeberria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88



Bihurri, Zelai eta Izeta nagusi Euskal Jaialdian

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK URTERO SAN JUAN JAIEN INGURUAN ANTOLATU OHI DUEN Euskal Jaialdiko norgehiagokan Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Jesus Gisasola "Zelai II.a" eta Joxe Ramon Iruretagoiena "Izeta II.a" nagusitu ziren domeka arratsaldean Untzagan. Bigarren geratu ziren Hodei Ezpeleta (12 urte), loritz Gisasola (14 urte) eta Francisco Javier Valenciano "Zelailuze" eta hirugarrenen, berriz, Joxe Felix Zubizarreta, Alex Txikon eta Karlos Ruiz de Aretxabaleta. Proban bete beharreko lanak 6 enbor txanda librean ebaki eta plazari 6 buelta txingekin eta beste 10 buelta antxixiketean ematea izan ziren.

Baina aizkolari eta harrijasotzaileek osatutako 3 hirukoteak zein baino zein indarrak neurtzen hasi aurretik, ohikoari jarraitu eta hainbat erakustaldi eskaini zizkieten herri kirolak ikustera joandakoei. Lehenik eta behin kolpeka jardun zuten Zubizarreta-Txikon eta Zelai-Bihurri aizkolariek,

bakoitzak korte erdia eginda. Jarraian, Izeta II.ak 138 kiloko errektangularrarekin 8 altxaldi egin zituen. Iparraldeko jokoentzat tartea ere izan zen eta Zelailuzek eta Aretxabaletak lasto-altxatzen jardun zuten minutu bateko txandan. Horren ostean desafioan jardun zuten aizkolariek, batetik Zubizarretak 5 metroko alturan korte bi eginda eta, bestetik Zelai-Txikon zutika eta Bihurrik esku bakarra erabilia enborra ebakita. Denporan oso berdinduta ibili ziren arren, lur gainean jardun zutenek alturan ibilitako zarauztarrari irabazi zioten. Aizkolarien desafioa amaituta, Izeta II.ak 125 kiloko kubikoarekin 12 jasoaldi egin zituen eta Zelailuzek eta Aretxabaletak eskainitako ingude-jasotzearekin amaitu zen exhibiziorako tartea. Aurtengo jaialdiko irabazleei sariak banatu aurretik, baina, Izetak bolarekin agurra egin zion publikoari eta Bihurrik aukia egin zuen, horretarako aizkora laga eta motozerra erabilia.



ITURRI
ARDOAK
ETXAKO ARDOPEN ERIL
ERDIA-ARDOAK-PIZZA-FRITOKO
BARRIOA 11 17

CCOO www.ccoo-euskadi.net
euskadiko langile komisiok
Mugitu zaitez!
MURRIZKETA SOZIALEI EZ!!!
Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

BOLINTXO OKINTEGIA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)

Mail
Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmail.com • www.industriasmail.com

Txupinazora doazen pausoak

SAN JUAN BEZPERA. ARRATSALDEKO 13.00AK. ESTAZIÑO KALEA. EZ DA ERRAZA ERREPIDEA IKUSTEA. Jendeak espaloiak betetzen ditu. Bete ez, batzuk errepidera irten behar dira atzekoei toki pixka bat egiteko. Ez da gutxiagorako. Urte osoan zehar itxarondako jaiak hastear daude. Iritsi dira Eibarrera Lizarrako Dultzaineroak. Estaziño kaletik udaletxera ibilaldia egingo dute euren dultzainen soinuekin. Atzean ehundaka eibartar euren pausoei segika. Txupinazora doazen pausoei.



Lizarrako dultzaineroek jendearen berotasuna jasotzen dute Estaziñotik udaletxera egiten duten bidean, baita eurekin urte-

ro doazen omenduak ere. Aurtengo edizioan Armeria Eskola (100 urte bete ditu), Casino Artista Eibarres (100 urte), Goruntz abesbatza (20 urte bete ditu) eta Asola-Berri soziedadeak (50 urte bete ditu) jasoko dute ohore hori eta herrikideen berotasuna.

Ordu erdiko bidearen ostean txupinazoa zerura botatzeko sasoa iritsiko da. Aurretik egunetako festak izango dituzte eibartarrek eta, nola ez, Lizarrako dultzaineroak kaleak girotzen ibiliko dira. Izan ere, Debako Erraldoiekin batera kalejiran igoko dira San Juan bezperan 19.00etan, San Juan egunean eta 25ean zezen plazaraino kalejira egingo dute 07.30etan, eta 25ean bertan 19.00etan Urkizutik Untzagara ere ibilaldia egingo dute. Lizarra-koak dira berez, baina hainbeste urteko harremanaren ondoren herrikidetzat dituzte eibartar askok.





SM MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



iSASI OKINDEGIA

DENDAK

- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25

LANTEGIA


- Elgetako bidea 9
943 70 07 77
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15
- Miguel de Aginaga



LUGI

ILE APAINDEGIA
9 4 3 1 2 1 5 6 2
Bidebarrieta, 60 - EIBAR

AHOLKULARITZA / AUDITORIA




Fermin Calbeton, 13-15
236 Postakutxa

Tfnoak. 943 202 461
943 700 142
Faxa. 943 201 125

Onda para Sanjuanetan!!

o
n
d
o
p
a
s
a
u



s
a
n
j
u
a
n
e
t
a
n

PINTXO BEREZIAK
goizeko 10.00etatik
zabalik
URKIZU, 11



943 20 11 26

www.restaurantechalcha.com

ZONA WIFI

DISCO

LUR

PE

BAR

music



birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

SOKO

"Tiro Pitxon Jafetxea" ARRATE



Eguneko
menua
Menu
bereziak
Karta
...
Terraza ederra bista paregabeekin

943 20 88 59

deportiboko taberna



T. Etxebarria, 16
943 20 70 44

**BOKATAK ETA AFARIAK
ASTEBURUETAN**
**Bazkariak eta afariak
ENKARGUZ**

Zubi-Gain URKIZUKO
DORREETAN



Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

Ego-Gain ANBULATEGIAREN
AURREAN



J. Etxebarria, 2 Tfnoa. 943-207165

Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan
E S P E Z I A L I Z A T U A K

Hamaika aurpegi dituen karroza

GUREA EZ DA, EZ, KALEJIRA IKUSGARRIAK ESKAINTZEKO MODUKO HERRIA, BATEZ ERE HERRIKO KALEEN ZABALERAK (edo hobeto esanda, hestutasunak) bertatik ibiliko direnen neurriak erabat baldintzatzen dituelako, baina hala ere, sekula ez zaigu gustatu beste toki batzuetakoak baino gutxiago izatea eta, horregatik, eibartarrok ere badugu gure karroza. Bai, singularrean, plataforma bakarra delako. Baina, era berean, herriko kaleak zeharkatzen dituen bakoitzean aurrekotik ezberdintzen den karroza berria dirudi eta horren arduradun nagusia Leire Kareaga da.

"Eibarren urtean birritan ateratzen dugu

karroza, Errege Kabalgatan eta orain, sanjuanetan. Kabalgataren ondoren, Brigadako beharginekin batera karroza desmontatzen hasten gara eta otsaila-martxoan aldean karrozan joango den taldea zein izango den esaten digute. Behin hori jakinda, taldeak dauzkan ezaugarriak begiratu eta horietara moldatu den diseinua sortzen hasten naiz eta, aurkeztu eta gustokoa baldin bada, marrazki eta maketatik abiatuta, kartoa, egurra, papela eta beste material batzuk erabilia karroza apaintzen-eta joango diren elementuan plataformari gehitzen joaten gara, karroza osatuta geratu arte".

Baina Nagusien Danborrada amaitu eta ia



jarraian, berriz ere karroza moldatu eta atzera ere kalera ateratzeko prestatu behar dute, hurrengo egunean Umeen Danborradari laguntzen joateko: *"Karrozako elementuetako asko finkoak dira eta horiek ez dira zertan muntatu edo desmontatu, apainketarako beste gauza batzuk aldatzearekin nahikoa izaten da umeen kalejirarako egokitzeke".*

Aurten Armeria Eskolakoak joango dira karroza gainean eta asteburuan ikusiko dugun karroza zezenplazan gordeta dago, noiz aterako duten zain. Baina horretarako ordua ailegatu bitartean, pista batzuk eman dizkigute: *"Engranaje batzuk izango ditu, dinamismoa adierazteko. Horrekin batera saso batean eskolan erabiltzen zizutzen gauzak (arkatzak, kalibreak, tornoak...), eskopeta handi bat eta garai berrietara moldatzen joan den, etorkizunari begiratzen dion ikastetxea dela aditzera emateko ordenagailu portatila ere izango du".*



Juan Gisasola, 12-14

Tfnoak.

943 20 39 02

943 70 13 95

BENICOBA

Etxeko Sukaldeko
tresnak altzariak

BEHAR DUZUNA LORTZEN
LAGUNTZEN DIZUGU

Zorionak!



Telekomunikazio

Instalaziorako

Enpresa

1.305 zkoa.

TB seinalea jasotzeko
antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala

Teledistribuzioak

Konponketak eta mantenimendua



www.trinmer.com

Ego-Gain, z/g • Tel: 943 127 350 Faxa: 943 207 360



Martin Zamakola (danbor nagusia):

“Umea izatetik guraso izatera bezala da zuzentzera pasatzea”

- Zelan aurkitzen zara zitaren aurrean?

Egia esan oso lasai nago, ez naiz urduri jarri Danborradaren aurrean.

- Aurretik ibili izan zara Danborradan?

Bai. 3-4 urterekin hasi nintzen eta urtero aritu izan naiz orain arte. Hasiera batean danborra jotzen ibili nintzen, baina orain dela urte bi barrila hartu nuen.

- Eta zein duzu nahiago?

Barrila. Ez soinuarengatik edo halako kontuegatik, baizik eta nagusia naizela esan nahi duelako.

- Piezen artean zein duzu gustokoen?


Ez zait bata bestea baino gehiago gustatzen. Denak normalak dira.

- Nola jakin zenuen aurtengo Danbor Nagusia izango zinela?

Aita etorri zitzaidan aurten Danbor Nagusia ni izango nintzela esanez. Kontua da Danborradan parte hartzen duten San Andres eskolako ikasleen artean ni nintzela nagusia eta esperientzia gehien onena, beraz, niri egokitzen zitzaidan Danbor Nagusia izatea.

- Eta alde handia dago danborra astintzen egotetik Danborrada zuzentzera?

Bai. Barrila jotzen duzunean zuzendarian fijatzen zara, ea berak zer agintzen duen, baina zuzendaria bazara, ezin diozu inori begiratu. Umea zarenean bezala da. Umetan amari begiratzen diozu, ea berak zer egiten duen eta abar, baina zu ama zarenean zure kabuz egin behar dituzu gauzak.



Ekainaren 24ak bere lehen segunduak bizi dituenan danbor hotsa nagusitzen da Eibarren. Jose Miguel Laskurain Danbor Nagusiak Danborradari hasiera ematen dio eta ordu bi eta erdiz herriko kaleetan zehar 15 bat pieza jotzen dituzte 200 danborrariak. Aurten, Armeria Eskolakoak izango dira omenduak eta, karrozan joateaz gain, pieza bat eskainiko diete, ‘Beti eibartarrak’. 25ean umeena da txanda. 400 bat gazte irtengo dira kalera Oria eta Ustekabe fanfarren laguntzarekin, eta horiek agintzen San Andres eskolako mutiko bat ibiliko da, Martin Zamakola.

Arregi - Dominguez ARRAINDEGIA

Ondo pasa
Sanjuanetan

**Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina**

Ego Gain, z/g
943 20 32 09

Bidebarrieta, 4
943 20 11 38

Txosnek bihar irekiko dituzte ateak eta sutsu ekingo die jaei. Gauerako karga handiko musika eskaintza zabalduko dute. Lehenik, Anai Arrebak taldea arituko da eta, ondoren, Kokeinek hartuko die lekukoa. Laugarren diskoa besapean dutela euren herrikideen aurrean arituko dira eibartarrak.

KOKEIN:

“Kokein-ek bere bidea markatzen dihardu”

- Martxoan kaleratu zenuten ‘Izan’ diskoa. Nolako harrera izan du?

JATSU: Ona. Aurrekoan begiratu nuen ea diskoak zenbat deskarga izan dituen eta 1.300etik gora izan dira. Biniloak ere saldu ditugu, baina ez ditugu kontuak egin. Guzti horrek hortik zehar kontzertuak jotzea ahalbidetu digu.

LETE: Deskarga librearekin jende gehiagorengana ailegatzea zen asmoa eta zentzu horretan ondo irten dela ematen du. Gure perspektibak bete dira behintzat.

- Esan duzuen bezala, biniloan ere kaleratu duzue lana. Zergatik biniloan?

ZALOA: Uste dut beti izan dugula hori egiteko gogoia. Gu binilo zaleak gara, etxean dexente dauzkagu. Orain arte egindako lanetan ez dugu proiektu guztia gure gain hartu eta biniloaren kontua atzeratzen joan gara. Azken honetan diskoa gure ardurapean egin dugu, eta modu digitalean internetetik deskargatzea eta biniloan kaleratzea erabaki genuen. Modu digital horretan jende gehiagorengana ailegatzeko zara, baina jendeak gure zerbaitek edukitzea nahi genuen. Orduan, biniloa altxor gisa eskaini dugu, CD-arekin konparatzen beste gauza bat delako.



LETE: Kokeinen zerbaitek berezia edukitzea nahi bazen, guretzat ere zerbaitek berezia izatea zen asmoa.

JATSU: CD-a hildako formatua dela konturatu ginen, iraganeko plastiko zatia.

- Nola joan da autoekoizpenaren kontua?

LETE: Gure kargu hartu dugu lan guztia, baina beti egin ditugu gauzak guk nahi izan ditugun moduan. Inoiz ez digute markatu zein bide hartu behar dugun, beti hartu dugu nahi izan dugun bidea. Oraingoan, lan gehiago egin behar izan dugu. Buruko min gehiago pasatzen dituzu, normalean baino pixka bat gehiago; baina bere alde onak ditu, zuk kontrolatzen duzulako dena, zure lana ekoitzea, nola ebatu, nola zabaldu... Internet erabili dugu bide moduan, oso merkea da eta jendearengana heltzeko gaur egun modu erreza da. Ekonomikoki guk hartu dugu arriskua eta hor egin dugu apustua.

JATSU: Etorkizunerako uste dut musika taldeek autoekoizpenaren bidea hartuko dutela. Iraganeko formulak desagertuta daude.

ZALOA: Medio gehiago dago horretarako gaur egun.

- Soinuari dagokionez, Kokein gogorra gozatzen da azken diskan. Zer uste duzue?

ZALOA: Behin diskoa egin dugula, ikusi dugu horrela izan daitekeela. Baina ez da planeatutako zerbaitek izan. Taldea bidea markatzen doanaren seinale dela uste dut. Pozik gaude horrekin, gure musikarekin eta taldearekin ibilbidea egiten dihardugulako.

LETE: Soinu aldetik krudelagoak bihurtu gara agian, taldea den bezala gehiago ikusten da eta aurreko diskoekin ezberdintasuna erakusten du.

- Zuek autoekoiztu duzuen bezala, Kokeinen talde bezala fidelagoa da diskoa?

ZALOA: Fidelagoa da taldea zuzenekoan denarekin. Naturalagoa.

- San Juan jaien zaleak zarete?

ZALOA: Zaharrak gara jada (barreak).

JATSU: Beti berdina diot: jai moduan ez zaizkit gustatzen, baina beti ondo pasatzen dut (barreak).

- Txosnetan kontzertua eskainiko duzue. Zein sentsazio daukazue horren aurrean?

ZALOA: Ondo dago, etxean gaude! Trasto denak berehala eramanez ahal izango ditugu lokalera (barreak).


LETE: Edo ez ditugu lokalera igoko! (barreak).

ZALOA: Herrian jotzea beti duzu gustoko. Lagun eta gertukoekin momentu hori konpartitzea polita da.



20 urte
eibartarron zerbitzura


ESKERRIK ASKO eta ondo pasa
Sanjuanak



Zure
etxe-barruen
GESTIOA

Julian Etxeberria 7, 7.-C
(Aldapatxo)

egolan.eibar@gmail.com



Nerea Areitio Etxaniz
Gorriti Diarzun Irastorza

Telefona:

943 20 22 39

Mobila:

617 16 33 82

Faxa:

943 20 01 05

Produktu
freskoak,
zure esku

EIBARIKO PLAZIA

X
BIMARTEGIALA



Txosnetan festa gau eta egun

Bihar hasi eta domekara arte (edo asteleheneko ordu txikietara arte) jaiak ez du etenik izango txosnetan. Gau eta egunez festaz gozatzeko aukera egongo da Errebaleko parkingean kokatuko den txosna gunean. Txosnen egitarauaren antolaketan ibili den Jon Baranguanek adierazi moduan, *“urte askotan gaueko giroa bultzatzen zentratu izan gara eta azkenaldian txosnen gunea gaueko toki bakarrik ez izaten ahalegindu gara”*.

IAZKO ESPERIENTZIARI BEGIRATUTA ESAN DAITEKE HELBURUA BETE ZELA. Izan ere, jende ugari batu zen txosnetan egun guztietan, bai egunez, bai gauetz. Urteetan zehar txosnen kokapenarengatik izandako tirabirak amaitu ziren iaz eta Errebalen tokia aurkitu zuten. Antza denez, toki egokia. Hori iristen dute Jaixak Herrixak Herrixandakoek behintzat. *“Txosnek iaz izan zuten kokapenarekin oso pozik geratu ginen, eta aurten ez da inongo arazorik egon toki horri eusteko. Gu pozik gaude hor”*, dio Baranguanek. *“Parkinga dago han, baina herriko jaiak*

urtean 4 egun dira eta txosnentzat leku aproposa da Errebalekoa”.

Jendearen partehartzeak gora

Sanjuanak ate-joka ditugun momentu honetan egitarau zabal eta anitza eskainiko dute txosnetakoek, baina horren antolaketan lan handia egon da. *“Apirila amaieran hasi ginen biltzen”*, zehazten du Baranguanek. Iaz txosnek izan zuten arrakastak eta jendeak bere herriko jaiak antolatzeko duen gogoia batuta, egitarauaren antolaketan partehartzeak gora egin duela aitortzen du. *“Hasiera batean 10-15 lagun biltzen*



<p>ETXERAKO ZERBITZUA</p> <p>PLATOS TÍPICOS TURCOS</p> <p>Prince</p> <p>döner kebab</p>	<p>Janari gozoa eta azkarra</p> <p><i>Txahal/oilasko Döner Kebab</i></p> <p><i>Kebab-a platerean</i></p> <p><i>Lahmacun entsaladarekin</i></p> <p>943 530 806 Arragueta, 25</p>	<p>PIZZA HOUSE Prince</p> <p>Hot & Spicy</p> <p>ETXERAKO ZERBITZUA</p> <p>943 208 373 Isasi, 13</p>
---	---	---



ginen, eta Sanjuanak gerturazten zihoazen neurrian kopurua asko igo da eta 30 bat lagun biltzen ari gara azken 3 asteetan. Azken urteetako ibilbidea ikusita jendearen partehartzea asko igo da”.

Ekainaren 23an egingo den herri-bazkarian ere nabaritu da jendearen partehartze handia Baranguanen berbetan, izan ere, “iaz 250 izan baziren, aurten 400era bidean goaz eta oraindik egunak falta dira jaiak hasteko”.

Txosnen irekiera bihar

Aurten Sanjuanak asteburuan ospatuko direla aprobe-



“Herri-bazkarian iaz 250 izan baginen, aurten 400era bidean goaz eta egunak falta dira jaiak hasteko”

txatuta, ekainaren 22tik aurrera antolatu dira ekintzak. Horrela, bihar egingo da txosnen irekiera. Horretarako, 18.30etan trikikalejira egingo da Untzagatik txosnetara eta jaiari hasiera emateko antzerkia egingo da bertan.

Musikak toki garrantzitsua izango du hiru egunetan zehar. Bihar gauetan Kokein eta Anai-Arreba taldeek kontzertua eskainiko dute, eta ostean DJ Fari eta DJ Beato arituko dira. Etzi Karma eta Feos pero majos taldeen txanda iritsiko da. Tartean, elektrotzaranga eta batukadek euren tokia izango dute txosnetan, eta domekan Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi eta Mikel Arrillaga bertsolariekin bertso-merienda egingo da.

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara: Inoiz entzunak, zein asmatuak.



Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com [#gorenak](#)

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zure nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen.
(Uztailaren 8ko Berran jakingo da irabazlea.)

Epaimahala: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

Aurreko asteburuan, zapatu gauean Amparo Sánchez-en kontzertuaren ostean saioa eskaini zuen gaur egun jende gehienak Arno DJ modura ezagutzen duen Joseba Barrutia eibartarrak eta sanjuanak agurtu aurretik berriz ere saioa eskaintzen izango da Untzagan. Eguntakoa beroketa-ariketa modura ere har dezake, behin egutegiko fetxa hauetan sartuta herri eta auzoetan ospatzen diren jaien kopuruak gora egiten duen neurrian, Arno DJ eta bere moduan plazarik plaza ibiltzen diren agendetako zuriuneak desagertzen joaten dira-eta.

JOSEBA BARRUTIA (Arno DJ):

“Errepertorio zabala eraman eta jendearen erantzuna begiratzeko ibiltzen naiz”

- Noiz eta zelan hasi zinen musika saioak eskaintzen?

Umetatik jardun izan dut horretan. 12 bat urte izango nituen aitarekin batera ezkontza eta horrelakoetan musika zuzenean eskaintzen hasi nintzenean, berez ni teklista naiz-eta. Baina zuzeneko emanaldiak albo batera laga eta DJ kontu honekin orain dela 10 bat urte hasi nintzen.

- Handia da musika eskaintzeko modu bien arteko ezberdintasuna?

Bai, elkarrengandik oso-oso ezberdinak dira. Zuzenean or-

kestina batekin batera jarduten duzunean errepertorioan dauden piezak ondo jotzen ikasi behar duzu, ensaiatu... Orain ni ibiltzen naizen moduan DJ saioetan musika eskaintzeko ez da horrelakorik behar, abestien baimenak zaindu, parean izango duzun publikoaren zein ekimenaren ezaugarrien arabera abestiek errepertorio zabala prestatu eta jendeak nola erantzuten duen ikusten joan behar da, horren arabera estilo batetik edo bestetik gehiago sartzeko joateko. Jakina, ez da



musika berbera eskaintzen jutilatu batzuentzat jardun behar duzunean edo, ezkontza batean, umeendako disko-festetan... zenbat eta musika mota ezberdin gehiago eraman, orduan eta hobeto.

- Dena dela, edozeinen aurrean zein edonon beti arrakatsuak izaten diren kanta batzuk izango dituzu, ezta?

Bai, bai, saio guztietarako balio duten fijo batzuk badaude, baina jendeak beti pozik hartzen dituen kantak, adibidez Egan taldearen "Behin batean Loiolan" eta horrelako beste batzuk.

- Zer da azkenaldian gehien eskatzen dituztena?

Nahiko modan daude "elektrolatino" modura ezagutzen direnak, baita Esne Beltza, Michel Telò-ren "Nossa Nossa" eta horrelakoak, baina horiek batera Gatibu, Ken 7 eta beste talde euskaldun batzuenak ere eskatzen dituzte. Aurreko zapatuan 1.30etan hasi eta 3.30ak arte jardun nuen Untzagan eta gazte mordoa batu zen. Oso giro polita sortu zen eta, gainera, nahiago zituzten euskal kantak beste edozein musika mota baino.

CORREDURIA COSTAMAR

AUTOAK	ISTRIPUAK	KARNET KENTZEA
ETXEA	DENDA	ASISTENTZIA BIDAIA
EHIZA	ENPRESA	E.P.S.V. PENTSIOAK
BIZITZA	AUTONOMOA	INBERTSIOAK
OSASUNA	AURREZPENA	BABES JURIDIKOA
HILETAK	ERANTZ. ZIBILA	KREDITUA ETA BERMEA

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartera - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

DEBA BEHEKO ELKARTEA
ESKUALDEKO BATZORDE ERAGILEA

Sindikatuaren zerbitzura

Jai zoriontsuak denontzat

Isasi, 2 - 1. -EIBAR-
☎ 943 82 07 82
Faxa. 943 82 04 09

“Denon Sindikatu”

Kiñu 2000

BURDINDEGIA

San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA

Elurki s.a.

AUTOEN MEKANIKA

INDUSTRIA
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK

Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
Transfab@euskalnet.net

Onda pasa Sanjuanetan!!



Mesón Aguiriaspi Zorionak!

Urkizu pasealekua, 22
Telf. 943 20 06 08



UNBE TABERNA
* Pintxoak
* Bokatak
* Bazkariak

Tel: 943 20 00 81

EGUNEROKO MENUA

TXOKO TXOKO

Giro alai Sanjuanetan!

**UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR**

T.Etxebarria, 21 Tel. 943 20 70 07




943 20 67 65
Bista Eder, 11

Oishi
su beroa

Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak

BNI CAFETERIA

Urkizu, 11 Tel. 943 12 09 89



OISHI
PINTXO BARRERIA

CATERING

943 20 09 45
927 41 78 33
Untzaga plaza



VIVALDI PUB

Eibarren
San Juan, 9

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK

MAIXA TABERNA Calbeton, 8
943 031271

- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Kazuelitak
- Pizak



Onda pasau!

xok



ALBOKA
SNACK BAR
ISASI, 5

Pintxoak
Hanburgesak
Konbinatuak
Bokatak
Razioak
Sandwichak

Disfuntatzena

Herrian errotutako abesbatzen emanaldia

SOSTOAREN SANJUANETA-KO KONTZERTUA BIHAR IZANGO DA, 20.30-ETAN COLISEOAN. Emanaldiak ordu eta erdi inguruko iraupena izango du eta Pablo Sorozabal musikagileari omenaldia egiteko aprobetxatuko dute. Berak sortutako abestiekin batera, musikagile donostiarraren bizitzaren pasarte garrantzitsuenei errepasoa emango diete eta, horrekin batera, Aita Donostiak, Fernando


Remachak, Aita Hilario Olazaránek eta Francisco Escudero idatzitako kanta bana sartuko dute egitarauan. Sostoa lagunzen Isabel Laspiur (pianoan), Andrea Berbois (biolinarekin), Sergio Morenza (gitarrarekin) eta Usartza txistulari taldekoek jardungo dute. Egitarauaren lehenengo zatian Sostoa abesbatzak jardungo du, jarraian musika instrumentalari eskainitako tartea zabalduko da eta horren

atzetik zarzuela ezagunetatik aukeratutako hainbat pieza eskainiko dituzte. Kontzertuaren amaieran San Juan Himnoa abestuko dute. Bestalde, otarraren zozketan saritutako zenbakia 6.697 (laranja kolorekoa) izan da eta honezkero irabazlea zein den badakite: Ermuko Manuel Calvo Cid. Zorionak!

San Andres parrokiako abesbatza

Herrian dauden abesbatzen artean Sostoa ezagunenetakoa da, ezagunena ez bada, baina badaude historia luzea izan arren, askorentzat horren ezagunak izango ez diren beste batzuk. Horren adibidetzat har dezakegu San Andres parrokiako koroa: orain dela 60 sortu zen abesbatza hasieran bakarrik gizonezkoek osatzen zuten, baina badira 14 urte an-

drazkoak sartzen hasi zirela eta gaur egun 30 bat lagunek osatutako taldean gehienak 65-70 urteren bueltan dabilzan emakumeak dira eta gizonezkoen artean 55-60 urte koruko kide izaten daramaten batzuk badaude. Abesbatzaren arduradunak Amaia Aranzabal eta Arrate Larrañaga dira eta organista Jon Zarrabe. San Juan bezperako Salbetik kanpora ere, urtean zehar hainbat saio eskaintzen ditu abesbatzak (Arrateko jaietan, Santa Zezilia, Sanandresetan, Abenduaren 8an, Gabonetan eta Berpizkunde domekako aurreko domekan, besteak beste). Entseguak martitzenetan izaten dira, 19.45etan hasi eta 21.00ak arte eta norbaitek abesbatzean sartzeko interesa badu orduan jo dezake bertara, arduradunekin egoteko.



Mahatsondo
ARDANDEGIA
ETXERA ERAMATEN
DUGU
Isasi, 19
686 154 867 / 943 033 800
www.mahatsondo.com

Sanjuan **zoriontsuak**
Gintela
Urkizu, 18 — 943 120194
MUGIKATZA

Tel. 943 20 87 38 Bista Eder, 5
ESLUNE Iurrindenda
arnani black code CARITA HR
jean pierre FERMETÉ VALMONT
SAN JUAN ZORIONTSUAK

Ondo pasa jaixetan!
Areitioko gailurra
Tel. 943 17 60 30
Faxa. 943 17 48 30
MANDIOLA
GARRAIOAK
138 Postakutxa
48260 ERMUA

AUTOEN



**28.
zkia.**

***...eta kittol
aldizkariaren
gehigarria***

gehigarria

Automobila bidaiatzeko prestatu

Urte sasoi honetan askok ohikoak baino bidaia luzeagoak egingo dituzte. Segurtasuna areagotzeko neurriak urte osoan garrantzitsuak badira, are garrantzitsuagoak dira horrelako sasoietan. Horregatik, oso komenigarria izaten da, azken unera arte itxaroten egon barik, denboraz ibili eta garajera bisitan joatea, automobilari goitik beherako errebisioa egiteko. Mekanikoeak ondo baino hobeto jakiten dute zeri begiratu, baina badaezpada jarraian aipatuko ditugun puntuari arreta berezia eskaini:

- Ibilgailuaren mekanika ondo dagoe la ziurtatu, batez ere balaztak.
- Haizetako-garbigailua eta kristal termikoak ondo funtzionatzen dutela begiratu.
- Ibilgailuaren argi guztiak ondo begiratzea komeni da.
- Balazten likidoaren eta olioaren mailak neurri egokian daudela konprobatu. Hotz handiko tokiren batera



- joateko asmoa duenak, berriz, izotzaren kontrakoari ere begiratu.
- Ibilgailuaren osagai guztiak ondo garbitu, norberak ondo ikusi ahal izateko eta besteek ere ondo ikusteko moduan izateko.
- Erroberak egoera onean daudela ziurtatu.
- Erroberentzat eta argientzat beharrezkoak diren ordezeko piezak eta horiek aldatzeko tresnak eraman.

- Derrigorrezkoak ez izan arren, gomendagarria da larrialdietarako linternaren bat eta bestelako gailuak eramatea.
- Eta aipatutako guztiez gain, ohiko aholkuei erreparatu: erregai-depositoa bete, bidaiatzeko jantzi erosoak ipini eta behar bezain beste aldiz geratu, atsedean hartzeko, batez ere automobilean umeak edo pertsona nagusiak badoaz.



ZURICH

Lejardi S.L

Aseguru Agentzia

Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

Torrekua, 2
20600 EIBAR

Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es

**ESTACION
DE SERVICIO
EIBAR, S.A.**



FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENKO BANAKETA

24 ordutan zabalik

Uda honetan milaka izar IRABAZTEKO!!!



**Aurrezten
lagunduko
dizugu, CLUB
AVIArekin batera**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE DOAN



MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
ERREMINTAK ETA AHOLKULARITZA DOAN
OSAGAI, ORDEZKO ETA NEUMATIKOEN SALMENTA

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA 09.30-20.30 LARUNBATETAN 09.30-13.30

Ibur Erreka, 38 - Olarreaga Auzoa, 38
(Eibar eta Ermuaren arteko probintzia mugan)
Tfnoa. 943 20 72 44 Mobila: 651 85 50 60

www.autobox.biz
autobox@autobox.biz



AUTO Aurrera KONPONKETAK

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/ g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)



**...eta kitto! aldizkariaren
AUTOEN GEHIGARRIA**

GASOLEOEN BANAKETA

Otaola etorbidea, 13 -Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 Faxa. 943 20 70 91

**GAUEZ ZERBITZU
AUTOMATIKOAK**

LOURDES URZURIAGA
987 ZENBAKIDUN DELEGATUA

**MAPFRE
ASEGURUAK**

AUTO ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
ETXEBITZITA ASEGURUAK

Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
☎ 943 820 449 Faxa: 943 208 653 Mobila: 607 401 929

Tailer profesionalak

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J

BIDAIA ASEGURUAK

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

VALDI
TAILER MEKANIKOAK

Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Aire egokitua.
Injekzio elektronikoa gasoila.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak...

Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

ACITAIN, S. A.

Zerbitzugunea **AVIA**

- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- Gasoleoen zuzeneko banaketa
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

LAGUNMOBIL
C A R R O C E R I A S

Telefonia 943 74 44 30 Faxa 943 74 44 36
Olaso Poligonoa (ELGOIBAR)

Lantalde profesionala
Ardura handiz egindako konponketak
1.000 m² instalazioetan

Ekipajea ondo kokatzearen garrantzia

Batek baino gehiagok buruhauste ederra izango du urtero, egun batzutarako etxetik kanpora joan eta maleta, motxila eta beste enparau guztiak automobileran sartzeko ordua ailegatzera. Ekipajea kokatzeko orduan urrezko legerari jarraitzea oso garrantzitsua da: gauzak edozein modutan sartzen ahalegindu aurretik, tartetxea hartu daukazuen tokia aztertu eta sartu beharrekoak modu egokienean nola kokatu daitezkeen pentsatzeko. Batzuetan hori nahikoa izango da automobilaren espazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Gaur egun familientzat pentsatuta dagoen edozein automobil hartuta ere, maletalekuak handiak izan ohi dira. Zer esanik ez automobila lur orotariko ibilgailua edo furgoneta itxurakoa baldin bada!


Hala ere, behin eta berriz azpimarratzen dute ekipajea ondo kokatzea benetan garrantzitsua dela eta kontua ez da txantxetan ibiltzekoa: izan ere, ekipajea txarto kokatua joateak gure segurtasunari zuzenean eragin diezaiolke. Horregatik, ahal izanez gero, sartu beharrezko guztia maletendako lekuan sartzen ahalegindu. Gauzak kokatzeko orduan, bakoitzaren pisua eta tamaina kontuan hartu eta oreka bilatu, pisu guztia ibilgailuaren alde batean ez geratzeko. Onena, pisutsuenak hasieran sartzea izaten da, grabitate-zentrua behean geratzeko. Ondoren, geratzen diren tartetxak aprobetxatu. Horrela, batak besteari eutsiko dio.



Eta automobil gainean zerbait eraman behar izanez gero, kontuan hartu bisibilitateari traba egiten dioten elementurik ez egotea. Eta saiatu automobil barruan ezer solte ez eramaten, ezustekoan automobila geratuz gero barruan doazenei zauri larriak egiteko arriskua saihesteko.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



Su magikoa gau magikoan

San Juan egunaren bezperan pizten den sua ez da edonolako sua. Edozein suren antza hartzen zaio hasiera batean, baina ez da horrela bere oinarrian. Tradizioaren garrak ditu barnean, urte, hamarkada, mende edo milurtekoetan gordetako bizipenak batzen ditu bere gorputzean. Ekainaren 23an bere argi eta beroak Untzagako plaza hartzen dute, bertakoen begiradak bere garretan finkatzen dituelarik.



SUAREN INGURUAN URTEE-TAKO OHITURAK ERAGINDAKO EKINTZAK EGITEN DIRA URTERO eta ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatutakoa aurtan ez da gutxiagorako izango. Nerea Lodosak zuzentzen dituen Ipuruak Dantza Garaikideko kideek hilabeteetan zehar prestatuko dantzak eskainiko dituzte Untzagan 23.00etan. 130-140 dantzarik hartuko dute parte guztira, hainbat taldetan banatuta.

Urteurren bereziak

Dantzen ostean omenaldien txanda etorriko da. Aurtengoan urteurren bereziak dituzten elkarre eta eskolak izango dira protagonista. Horrela, Armeria



Eskolak (100 urte), Casino Artista Eibarres (100 urte), Asola Berri (50 urte) eta Goruntz abesbatzak (20 urte) hartuko dute sua pizteko ardura. Suaren garrek altuera hartzen duten bitartean San Juan kantua abestuko da plazan.

Galizian ere San Juan eguna

ospatzeko ohitura daukate eta urtero hori gogoratzeaz arduratzen da As Burgas Galizia Etxea. Eibarko galiziar elkarateak 'O conxuro' egingo du eta ez da 'queimada' faltako. Horrela, aipatutako 'queimada' prestatuko dute horren inguruan dagoen konjuria esaten duten bitartean.





Larragest

INMOBILIARIA AGENTZIA

F. Calbetón, 22-24
Tf. 943 200 012
Mob. 690 610 715



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Bidebarrieta 20

Tlfno: **943 20 16 69**



Antzerkiak bere tarte izango du, ohikoa denez, jaietako programan. Baina kasu honetan aktoreak ez dira areto bateko eszenatoki gainean arituko, kalea izango baitute eszenatoki. Eibarko kaleak ondo ezagutzen duen antzerki talde bat badago, hori Trapu Zaharra da. Aurtengoan 'Vuelta y vuelta' saioa eskainiko dute hilaren 23an 19.30etan Untzagan. Umorez beteriko antzezlan honetan aktore lanak egiten dituen Iraitz Lizarragarekin mintzatu gara.



IRAITZ LIZARRAGA (aktorea):

“Publikoa funtsezkoa da gure saioetan”

- Aurten ere jaietan ikuskizuna eskainiko duzue. Sanjuanetako antzezle ofizialak izendatuko zaituztete!

Tira, ez dut uste hainbestearainokoa izango denik (barreak).

- Nabaria dena da, gutxienez, eibartarrei zuen antzezlanak gustatzen zaizkiela, bestela nola etorri hainbeste aldiz hona. Zuek, bestetik, nola ikusten duzue publiko eibartarra?

Guretzat ona. Gainera, urteetan toki batera bazoaz, zu ikustera doan publikoak daukazu ea saio berrian zer planteatzen duzun. Hori eskertzekoa da.

- Aurten 'Vuelta y vuelta' antzezlan eskainiko duzue. Zertan datza?

Krisiaren gaia jorratzen du. Horrela, komertzial batzuk aurkezten dira bertan eta gai horren inguruan hainbat bizipen erakusten dira.

- Kalean antzeztzen duzue. Nolako da hor aritzearen sentsazioa?

Kalean edo aretoan aritzea oso ezberdina da. Kalean ikuslearekin kontaktua daukazu eta horrek zerbait sortzen du, eurak ikuskizunean sartzen direlako. Guk publikoarekin jolasten dugu eta funtsezkoak dira saioan.



EGOKOP, S.L.L.

Bidebarrieta, 46 - behea
311 postakutxa 20600 EIBAR
Tel. eta Faxe: 943 20 86 12
egokopsll@euskalnet.net

FOTOKOPIAK - LASER - KOLOREA
PLANOEN ERREPRODUKZIOA
ENKUADERNAZIOA - PLASTIFIKATUAK
FAX ZERBITZUA - CD-TIK INPRESIO
DIGITALA Z/B - PEN-DRIVE-TIK
INPRESIO DIGITALA Z/B



astixa



GAUR

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
KONPONKETA
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
AUTOMATIKOAK ETA
BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea
Telefonoa 943 20 62 40

20600 EIBAR
Faxe 943 05 69 23



**CATALANA
OCCIDENTE**

Aseguruak

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO
ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO:
Familia-Etxebizitza, Dendak,
Bulegoak, Eraikinak,
Jabeen erkidegoak,
Enpresa Txikiak eta Ertainak,
Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com

Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

RPS: 124/10



943 366 377 www.dentalaldaz.com

hartz klinika - clinica dental

San Bartolome, 22 (Elgoibar)
Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

*"Aldaz Hartz Klinikak
eta bertoko profesional-taldeak
SANJUAN ZORIONTSUAK
opa dizkizue"*

LEHENENGO BISITA
+
AHO AZTERKETA
+
AURREKONTUA

DOAN

39€

AHO GARBIKETA


149€

ZURITZEA

149€

AHO GARBIKETA + ZURITZEA

Ordainketa %0ko interesekin
36 hilabete arte (aurrekontuaren arabera)*



INPLANTEA
+ HORTZA
egun
batean

Arazoak
hartz hagin
ordezkoarekin
edo hartz bat
edo besteren
faltarekin?

SOLUZIO FINKOA:
hartz bat edo gehiago
jartzea metal-zeramikan
SOLUZIO FINKOA:
hartz guztiak metal-
zeramikan jartzea
6 inplanterekin
SOLUZIO MUGIKORRA:
ordezko hartz hagin osoa
erretxinan jartzea
2 inplanterekin gutxienez



Kultö:

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39

Ondo para jaietan!!



San Juanetan ere zuen zerbitzura!!



Ez da lehen aldia euren marrazkiekin lehiaketa bat irabazten dutena eta, antza denez, ez da azkena izango. Mikel Treviño eta Joseba Aranzabal eibartarrek, eta Amaia Ajuriagerra gasteiztarrek arkitektu bezala egiten dute lan eta, proiektutik proiektura, badute euren umore eta artea paperean islatzeko aukera. Aurtengo Sanjuanetako Alkohol Gehiegi Ez Edateko Umore Kutsua daukan Pegatina eurena izango da. Odol urdina duen pegatina.



Mikel Treviño, Joseba Aranzabal eta Amaia Ajuriagerra:

“Bizitza umorez hartu behar da”

- Elefantea, tronpa, erregea... safariaren antza hartzen diezue Sanjuaneñi?

Ez, ez... Espainiako erregearen auzia dela eta otu zitzaigun ideia, bolo-bolo zebilen kontua baitzen. Aurten egin beharreko pegatina zen, hitz jokua eta gertaera aprobetxatuta. Datorren urtean jada ez du zentzu berdina izango.

- Ez dizuet zelatari papera eman nahi, baina tronparen erregerik eza-gutzen duzue inguruan?

Bai, tronpazale asko dago gure artean (barreak).

- Eta zuen artean, zein da errege edo erregina?

Gu nahiko formalak gara, ez dago gure artean tronpetan erregerik.

- Pegatina, hala ere, tronparen erregerik ez egoteko



egina dago. Eredua eman beharrea sentitzen zarete?

Bueno, lantzean behin edatea, neurrian noski, onuragarria da. Guztia bezala. Neurrian neurrikoa.

- Gasteiztar bat eta eibartar bi zarete. Sanjuanzaleak denak? Zer duzue jaietan gustokoen?

Sanandresak nahiago ditugu, baina Sanjuanak ere bereziak dira. Soka dantza gustatzen zaigu gehien, eta dagoen giroa baita ere. Kanpoko jendea Eibarko jaietan ikustea ona da herriarrendako.

- Pegatinaren mezua jendearengana ailegatzeko, umorea hobe?

Bai, nola ez. Norberaren buruaz barre egiten jakin behar da eta bizitza umorez hartu, bestela jai dago!

Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

Oinetakoak

Tribeka

jasi ta jasi
konponketak eta jostun lanak

Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640

EGUREN & ASOCIADOS

JOSE VICENTE PEROSANZ
M^e LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006

Urtzaile, 1 20600 EIBAR egurenyasoc@sarenet.es

odontologia biologikoa eta orokorra
terapia neurala
osteopatia

miren albistegi sojo

Errebal, 14 943-201721

Koadrila giroan, Sanjuanak alaiago

Festa norberak bere neurrian jartzen duela esaten da, baina argi dago lagun artean festa gozagarriagoa dela. Sanjuanetan koadrilek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzen duten gazteen aurpegiak ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko. Irrifarreak, algara, poza eta, nola ez, festarako gogoia.

AURTENGO EDIZIOAN SAN JUAN BEZPERAN ZENTRATUKO DITUZTE KOADRILEK EUREN EKINTZAK. Hori bai, dena egun batean egingo badute ere, ondo pasatzeko aukera izango dute. Horrela, goizean goizetik ipiniko dira martxan herriko gazteak.

Lizarrako dultzaineroei harre-beroa egin ahal izateko, koadrila

drilak 12.00etan batuko dira Untzagan eta kalejira egingo dute Urkizuraino. Han herriko koadrilak batu eta Estaziño kalerara hurbilduko dira dultzaineroen lehen musika doinuak entzun eta 13.00etan eurekin Untzagaraino kalejira egiteko.

Behin udaletxera helduta, plazan batu eta pregoia eta jaiari hasiera ofiziala ematen



dien txupinazoa biziko dituzte gazteek.

Indarrak hartu beharko dituzte arratsalderako eta horretarako tartea izango dute. 17.30-etan, ordea, festak jarraitu egingo du. Koadrilak Untzagan bilduko dira eta kalejira egingo dute zezen plazaraino. Han, azken urteotan ohikoa izan den bezala, koadrilen arteko jokoak egingo dituzte 18.00etatik aurrera. Ez dira barreak, korrikaldiak, ura eta zalaparta faltako.



Ostalaritza Zerbitzu Integrala

ARDOAK / LIKOREAK / URAK / GARBIKETA-PRODUKTUAK / ZELULOSA / KONTSERBAK / ...

www.beristain.net
tlf: 902 180 365

San Juan jai zoriontsuak!

Quetzal
[Amopu, bitxiak, operak...]

berria!!
ekainerik aurrera
Eibarren

Zuloagatarren, 7 - 20600 EIBAR 943531500 - Goiensele, 9 - 48260 ERMUA 943130011

Kunbia hego-amerikan sortutako musika da. Argentina, Kolonbia eta bestelako herrialdeetan arrakasta handia dauka eta bere doinuekin jende askok egiten du dantza. Handik, milaka kilometrotara, Galizian, kunbiak ere bere lekutxo dauka, O Sonoro Maxin taldean zuzenki. Hala ere, kunbia taldea baino zerbait gehiago direla dio ICO abeslariak. Bihar izango dugu galiziarrek zuzenean ikusteko aukera, Emepebost-en ostean Untzagan.

ICO (O Sonoro Maxin-eko abeslaria):

“Berbena berba berritzen saiatzen gara”


- Zein motako musika taldea da O Sonoro Maxin?

Kunbia ez den kunbia egiten saiatzen gara. Kunbiaren izaera festagarri eta dantzagarria hartzea da gure asmoa, eta gure buruetatik pasatuz aldatu egiten dugu moduren batean. Kunbiaren antza duen zerbait egiten dugu, kunbia modernoa bezala, kutsu galegoa duena.

- Zergatik sortzen da kunbia talde bat Galizian?

Erreza da zaila den heinean. Kunbiak ez du ia presentziarik Galizian, baina emigratioagatik gure aitona eta birraitoneteriko asko Amerikara joan ziren, eta hemengo orkestra askok girak egiten zituzten han. Bueltan erritmo tropikalak ekartzen zituzten, momentuan momentukoak. Galizia ez da kunbia gunea, baina orduko orkestran legatua oraindik badago.

- ‘Una onda sonora’ (Soinudun olatua) izeneko diskoa kaleratu duzue. Nolako olatuak dakarzkizue?



“Galizia ez da kunbia gunea, baina Amerikara joan zirenen sasoi bateko orkestran legatua oraindik bizirik dago”



Gaur egun itsasoa nahiko mugitua dago, orokorrean. Soinuen olatuez ari gara titulu, baina baita pertsonen barrenetik irtezen denaren gainean. Horrek mugitu behar gaitu gauzak egitera. Bestetik, gu Orensekoak gara, Galizian itsasoa ez duen probintzia bakarrekoak, orduan, hitz-jokoa eginez, barrenetik datorren olatua dela diogu. Orensetik, baina baita norberaren bihotz eta burutik.

- Manu Chao&Radio Bemba Sound System, Los Delinquentes, Tonino Carotone... bezalako taldeekin aritu zarete eszenatoki gainean. Zer suposatzen du zuentzat horrek?

Urteak daramatzagu musika munduan aurretik ere eta musikari askorekin aritu izan gara. Manurekin urteetako laguntasunak batzen gaitu, orain dela 15 bat urte Konpostelan ‘Feira das mentiras’ asmatu zuenetik. Denekin ikasten dugu asko, berba egitearekin bakarrik, esperientzia gehiago dutelako.

- Zuzeneko kontzertuetatik grabaketa estudioara pasatu zarete...

Bai, gauzak alderantziz egiten ditugu (barreak). Batetik, ez dakigu gauza bi aldi berean egiten. Beraz, abestiak egin, publi-

koari aurkeztu eta, gero, estudioan sartzen gara. Bestetik, grabatu aurretik, abestiek bizitza izan dezatela gustatzen zaigu. Orduan, beharrezkoa da abestiak publikoari igortzea, errodajea egitea, aldatu behar badira aldatzea eta gugana indartuta bueltatzea.

- Grabaketa estudioa hemendik hurbil daukazue, Andoainean.

Bai! Kaki Arkarazorekin 2004ean egin genuen topo, La Matumba taldearen diskoaren grabaketa egitera joan ginenean. Berarekin oso harreman ona geneukan eta berarekin egitea erabaki genuen. Ondo ezagutzen gaitu, eta pare bat berbaldi eta entsegutan bazekien zer bilatzen genuen. Bestetik, Garaten grabatzea, Andoainean, benetako luxua da.

- Bihar Eibarren arituko zarete. Nolako izango da kontzertua?

Berbena berba berritzen saiatzen gara, herriko festa gisa eta plazan edonork bere tokia izan dezan. Berbenak oso gustoko ditugu, baina arrakasta handiko abestietatik at gaude eta dantzarako gogoia sortzen duten abestiak egiten ditugu. XXI. mendean gaudela jakinarazi nahi dugu, berbenari kutsu berria emanaz.

Onda para Sanjuanetan!!

GURE LEKU

Isasi, 3
20600 EIBAR ☎ 943 20 71 89

GIN-TONIC onenak gurean!!!

San Juan, 4 AC

TXURRUT

zabalik goizeko 9.00etatik

943 20 61 43

bar aldatz

ALDATZ taberna

Martxa nahi baduzu... Zatoz! Zure zain gaude

San Juan, 3

Taberna - Snack

POZKARI

Pintxo beroetan eta hotzetan espezialistak

J. Etxebarria 11
EIBAR ☎ 943 70 20 37

ASTELENA

JATETXEA

Estaziño, 7
943 25 49 86

ETXEAN EGINDAKO JANARIA

Goizeko 07.30etatik zabalik

ondo para Sanjuanak eta Sanpedroak!!!

bar manuel (JUANITO)

Urkizu, 5 943 12 16 57

943 20 24 01 Egunero

- Gosariak 07.00etan
- Plater konbinatuak zabaltzen
- Eguneko menua dugu

ISASI, 9

LA TABERNA DE LUIS

943-201537

TUNEL-PE bar

Plater konbinatuak Pintxoak

Ogitartekoak

San Juan 3 ☎ 943 700 641

Plater konbinatuak, razioak, kazuelatxoak, afariak eta bazkariak enkarguz

EGUNERO eguneko platerrak

T. Etxebarria 16
Tel. 943 82 13 41

Birjinape

Musikak kalea hartuko du hurrengo egunotan, fanfarreak protagonista izango baitira. Umeen Danborradan, adibidez, Oria eta Ustekabe arituko dira. Aipatzekoa da eibartarren kasua, izan ere, azken urteotan 13 kide berri sartu dira eta presidente berria izendatu dute, Xabier Oruesagasti. Bestetik, Errumaniatik Fanfare Shukar datorkigu Europako ekialdeko soinuekin. Gogotsu datoz euren herrialdean duten arrakasta hemen ere lortzeko asmoarekin.



COSTICA PANTIRU (Fanfare Shukar):

“Gure musika eibartarrei gustatzea saria litzateke guretzat”

- Zer da Fanfare Shukar? Zenbat musikarik osatzen duzue? Zein musikatresnarekin egiten duzue musika?

Errumaniako Zece Prajini herriko metalezko instrumentuak jotzen dituen ijito musika taldea da Fanfare Shukar. Errumaniako metalezko instrumentuen musika talde ezagunena da, errepertorio askotarikoa duena eta arrakasta gehiena duena. Guztira 9 musikarik osatzen dugu taldea eta horrela azalduko gara Eibarren.

- Nolako musika mota jotzen duzue?

Esan bezala, metalezko musika-tresnak erabiltzen ditugu eta guk egiten duguna Shukar panbalkanikoa da. Hala ere, Errumania osoko eta Ekialdeko Eu-

ropako beste herrialde batzuetako in-fluentziak ere ditugu.

- Zuentzat lehen aldia da Euskal Herriara saioa eskaintzera zatoztena?

Ez da lehen aldia. Espainian askotan izan gara, baita Euskal Herrian ere.

- Nolakoa izango da Eibarren eskainiko duzuen ikuskizuna? Zein da zuen asmoa? Zerbait esan nahi diezue eibartarrei alde zurretik?

Gure nahia Eibarren batuko diren lagunei ikuskizunean parte hartu dezatela da. Saioan jende asko biltzea zoragarria izango litzateke, gure musika entzuteko. Horrela, bertan batzen direnei gure musika asko gustatzen bazaie, guretzat demaseko saria izango da.



**KINKILR
MERTZERIA**

Bidebarrieta, 16 943-702329

J. Gisasola, 4 Errebal, 6 Urkizu, 16
943 25 79 54 943 12 71 87 943 20 63 51

Guillerma

publi resa

- Pin-ak
 - Metxeroak
 - Kamisetak
 - Boligrafoak...

**PUBLIZITATE ARLOKO eta
 ENPRESETAKO OPARIAK**

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

TXUTXUFLETAS

**PRENTSA
 ALDIZKARIAK
 GOZOKIAK
 FRUITU SIKUAK
 • OGI BEROA**

T. Etxebarria, 24 eta T. Etxebarria, 16

Itoiz jatorrizko taldeko kidea eta musika gehiena konposatu zuenak gordetako doinu horiek orkestra sinfoniko baten berezko hizkuntzara egokitzea zuen buruan aspalditik eta erakargarri ikusten zuen helburu hori betetzea lortu du Bilboko Orkestra Sinfonikoaren eta Juanjo Mena zuzendariaren eskutik.


ITOIZ JATORRIZKO TALDEKO KIDEA ETA MUSIKA GEHIENA KONPOSATU ZUENAK gordetako doinu horiek orkestra sinfoniko baten berezko hizkuntzara egokitzea zuen buruan aspalditik eta erakargarri ikusten zuen helburu hori betetzea lortu zuen Bilboko Orkestra Sinfonikoaren eta Juanjo Mena zuzendariaren eskutik. Lanak zazpi mugimendu ditu, taldearen beste hainbeste abesti abiapuntu hartuta: Ezekiel, Marea gora, Marilyn, Goizeko deiadar / Lo egin, Lau teilatu, Hegal egiten eta Foisis jauna. Guztira 40-45 minutuko kontua, opari txiki bat tartean duena: "Zati txiki bat La m'en", Itoizek 1978an argitaratu zuen lehenengo diskoko kantua, bis erara abestuko den pieza baka-

Juan Carlos Pérezen bariazio sinfonikoa

rra izango dena, Jose Garate, Itoizeko kide ohia eta gaur egun BOSaren kontrabaxu jotzaile finkoa eta Juan Carlos Pérezen ahotsekin orkestak lagunduta abestuko dena. Lan sinfonikoa da, testurik gabea, jatorrizkoaren gainetik bariatutako musikak bakarrik gidatua; batzuetan berrasmatua, beste batzuetan historiagilearen arreta eta zintotasunarekin errespetatua, baina beti ere 70eko hamarkadako rock estetikan sustraituta zegoen musikaren pentsaera musikala bizirik gordetzen duena. Musika besterik ez: Itoizen musika, orkestra sin-

foniko klasiko baten eskuiekin interpretatua izateko idatzia.


Holst, Elgar, Britten, Bernsteini, Sibelius, Vaughan Williams dira urrunetik ber-egokitzapen hau "zaintzen" duten musikari batzuen izenak. Ez da kasualitatea gehienak kultura anglosaxoniarraren egotea, nabaria baita musikagile horien musika kultoa eta rock musika tradizio beretik elikatzen direla. Ugariak dira ere nazioarteko merkatuan era horretako proiektuak: London Symphony Orkestrak interpretatutako eta grabatutako musika sinfonikoa, Who, Pink Floyd, Led Zeppelin,



etab. bezalako talde mitikoen musikaren egokitzapenak... guztiak ere Itoiz taldearen erreferentzia taldeak zirenak sortuntza lanik handiena egin zuten sasoian. Erronka kitzikagarria beraz, bai Itoizen jarraitzaile sutsuentzat, baita klasikoaren publiko zabalarentzat.

Hilaren 29an, Coliseoan

Itoiz taldearen kanta ezagunak Coliseoan entzun ahal izango ditugu ekainaren 29an. "Itoiz Suite" kontzertua arratsaldetik 20.00etan hasiko da, eta Armeria Eskolaren mendeurrena ospatzeko ekintzen barnean txertatzen da. Sarrerak 14 eurotan (20 € leihatilan) daude salgai www.ticketea.com/itoiz-suite helbidean.



ESTETIKA & WELLNESS SPA ORBEA



San Juan zeriontsuak!!

PRESTATU ZURE AZALA UDARAKO

5 saioko bonoarekin bat opari
Goi mailako kosmetika salgai

Orbea Kiroldedia (Urkizu, 11) Tel. 943 030 015

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Zerbitzu teknikoa
- Neurriera egindako software-a

ASUS

DELL

HP

SAMSUNG

Lenovo

Gerritek

Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

Sanjuanetatik Sanpedroetara, Karmen kaletik igarota

ASTELEHENEAN, SAN JUAN TXIKI EGUNEAN ESANGO DIEGU AGUR aurtengo San Juan jaiei. Baina abestiak dioen moduan, "San Juan, San Juan, berandu etorri eta bizkor joan" eta horrela emango zenituzten jaiak zuetarik askok. Baina lasai, San Juan datorren urtera arte etorriko ez bada ere, nahi duenak aurrerantzean ere jaietan ederto pasatzeko nahi bezainbeste aukera izango du-eta. Nahi izanez gero datorren asteko eguenean eta herri-irten barik, gainera, Beheko Tokia jubilatuen etxekoek San Pedro jaiak ospatzeko antolatutako egitarauak jasotzen dituen guztiei esker.



Debako erraldoiak

AZKEN URTEOTAN BETI GONBIDATU IZAN DITUZTE DEBAKO ERRALDOIAK, EIBARKO BURUHAUNDIEI KALEJIRETAN LAGUNDUTA, bide batez gure jaietan parte-hartzeko aukera izateko, baina urteak joan urteak etorri, gure pertsonaiak zahartzen joan zaizkigu eta iaz erretiroa hartzeko sasoi ailegatu zitzaie erabaki zuten ia egun batetik bestera eta batez ere egoerak derrigortuta. Izan ere, kalejiretan umeak ikaritzen ibiltzeko jantzi ohi zituzten buruak benetan hondatuta zeudela ikusi eta, horrela jaietan ibiltzerik ez zegoela pentsatu zuten, egitarauan

iragarrita egon arren azken orduan bertan behera laga zuten euren parte-hartzea eta, orain arte behintzat errelorik ez dagoenez, aurtengo sanjuanetan bakarrik Debako erraldoiak izango ditugu, lau haundi eta txiki bi.

Gaur egun gurera etortzen den taldeak 10 bat urte daramatza martxan, baina bere aurretik egon zen beste talde bati jarraipena ematen ekin zion bidetari. Konpartsan 15 bat lagunek jarduten dute eta, eurek kontatu digutenez, "barrutik ezberdin ikusten da jai, baina ohitu egiten zara eta ondo dago. Gainera umeek nola begiratzeko zaituzten ikustea oso polita da".

Atsedenez dihardugu?

Etxedreams koltxoi-dendak:
25 urtetik gora guztion atsedinari eta ongizateari eskainiak
Telf. 943-177041

Zubiaurre, 32 ERMUA Mikeldi, 4 DURANGO Isasi, 23 EIBAR

Super BM

Super BM IFA taldea, zure eguneroko erosketara

Julian Etxeberria, 14-16 Tel. 943 70 15 90

1983-tik

EL TIO PALANCAS

- ENKURTIDOAK
- OLIBAK
- GOZOKIAK
- Urtebetetze eta ezkontzetarako POLTSAK
- Isasiko OGIA

Egunero zabalik

JUAN GISASOLA, 8
665 70 20 82

043-20-1219
015-474037

Ibaiondo
inmobiliaria

ZURE INMOBILIARIA

WWW.IBAIONDOINMOBILIARIA.COM

BlaB

Julian Etxeberria, 8
-EIBAR-
Telf: 943 20 15 46

Zu bai adimentsua!
Orain depilatu zaitez
LASER-arekin!!!

LASER DEPILAZIOA

DEPILAZIO ADIMENTSUA

PROMOZIOA*

Zango osoak
+
Izterrondoak
+
Besapeak

95 €

40 €
saio eta zona
bakoitzeko

* Promozio baliagarria
5 saioko pack-a
kontratatuta

Saioen arteko gutxieneko tartea bi hilabetekoa da gutxi gorabehera

**Eibarko Udalak
San Juan eta
San Pedro
jai zorientsuak
opa dizkizu!**





Garagardo Jaiko zozketa

DOMEKAN ITXI ZEN RUGBI TALDEKOEN GARAGARDO JAIA, baina aurretik lagun bi- rendako Momentos Mediterraneos kruzeroaren zozketa egin zuten eta zenbaki saritua 1.149 izan da. Zenbaki hori duenak saria eskatu eta jaso ahal izateko 610432687 telefonora deitu beharko du. Bestalde, Rugby taldekoek karpara gerturatutako guztiei euren esker ona azaldu nahi diete, taldeari lagundu izanagatik.

Atzegiko familien jaia

URTEROKO MODUAN, ATZEGIKO BAZKIDE DIREN FAMILIEK DEBABARRENA MAILAKO JAIA ospatu dute. Familien topaketa hilaren 10ean izan zen eta, meza entzun ostean Eibarren paseatu ondoren, denak elkarrekin bazkaldu zuten Iruki sagardotegian. Betiko moduan, batutakoek primeran, umore onean, eman zuten eguna eta bazkalostean, gainera, musika, opari eta beste hainbatentzat tartea ere izan zen.



Llamak ekoiztutako bideoklipa Cannes-en

JORGE LLAMA EIBARTARRAK EKOITZI DUEN MAÏA VIDAL-EN "FOLLOW ME" BIDEOKLIPA Cannes-en Young Director Award saria jasotzeko izendatuta dago eta gaur bertan jakingo dugu azkenean saria jaso duen ala ez, 17.00etatik aurrera La Croisette-ko Miramar-en ospatuko den galan emango baitute ezagutzera saritutako bideoak zeintzuk diren. Hautagaien artean dagoen lana, Maïa Vidal abeslariaren "Follow Me" bideoklipa, aurtengo otsailean grabatu zuten Riudaura-ko (Girona) mendietan eta Bartzelonako Hangarrean, Joana Coloma-



rren zuzendaritzapean. Grabazioan 25 lagunek jardun zuten, gehienak gazteak, eta lantaldeko kideetako bat bideoa ekoitzi duen Jorge Llama (Eibar, 1985) da.

Herriko ordezkari bi Glencree ekimenean

ZAPATUAN DONOSTIAN BAT EGINDA ELKARRREN MINA AITORTU ZUTEN JATORRI ANITZEKO BIKTIMEN taldean Eibarko ordezkari bi izan ziren, biak ere poliziaren biktima izandako



familietakoak: Maribel González (argazkian) gordia zibil batek 1976xan hil zuten Alberto Soliño musikagilearen alarguna da eta bestea, berriz, Jorge Pérez Jauregi, 1970an poliziak tiroz hildako Robertoren anaia. Glencree ekimenean ETaren, GALen, Batallón Vasco-Españolen eta Poliziaren biktimak bildu dira azken bost urteotan eta batzuek zein besteek jasandakoa "bidegabetzat" jo dute, gertatutako inguruko erantzukizunak ere eskatuta. Zapatuko adierazpena urteotan egindako bide isilaren emaitza izan da: bata bestearen lekuan jarri eta mina aitortzeko gauza izan dira 25 sinatzaileak.



Irakurle gazteak saritu dituzte

MARTITZEN ARRATSALDEAN BANATU ZITUZTEN LI(BURU-HAUSGARRIAK) LEHIAKETAREN SARIAK Umeen Liburutegian. Apirilaz geroztik martxan izan den jokoan LH-ko 2. mailatik aurrerakoek hartu dute parte: liburuak irakurri ahala, buru-hausgarri baten piezak lortzen joan dira, Eibarri buruzko galderei erantzunez. Puzzlean agertzen den irudia identifikatzean datza jokoaren mamia. Lehiaketan parte hartzera animatu direnen artean denera 160 liburu irakurri dituzte eta denek opari bana eraman dute etxera eta, horrez gain, maila bakoitzean bizikleta bana zozketatu dute.



Kolon-minbiziaren kontrako topaketa

EGUAZTENEAN, HILAREN 27-AN, KOLON-MINBIZIAREN KONTRAKO TOPAKETA MEDIKU-GASTRONOMIKOA hartuko du Alperak elkarteak (Toribio Etxebarria, 22), 19.00etatik aurrera. Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, Debarrenako ESI-aren laguntzarekin antolatutako topaketan Eva Zapata, Leire Zubiaurre eta Arantxa Iribarren Mendaroko Ospitaleko sendagileek hartuko dute parte eta moderatzailea Maider Sierra, psikoontologoa eta Gipuzkoa-ko Minbiziaren kontrako elkarteko prebentzio arloko arduraduna izango da. Sukaldaria, berriz, Luis Garate izango da. Parte-hartzea doakoa da eta izen-ematea 943 457722 telefonora deituta egin daiteke.



Jaurlaritzak ia %44 jaitsi du ...eta kitto! astekariaren diru-laguntza

ASTELEHENEAN JASO ZUEN KOMUNIKABIDEEN ALORRAREN AURTENGO DIRULAGUNTZEN ESLEIPENA ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Esku artean duzuen aldizkariak 26.402 euro gutxiago jasoko du 2012an Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak banatzen duen diru poltsatik.

Tokiko hedabideoi dagokigun diru poltsak %18ko jaitsiera izan du, baina ...eta kitto!ren jaitsiera %43,67koa izango da; dirutan, jaitsiera handiena da gure aldizkariak izango duena. Inoiz izan dugun jaitsiera nabarmenena, 2006 urteaz geroztik ez zuen Eusko Jaurlaritzatik hain kopuru txikia jasotzen aldizkariak eta eragin zuzena du elkarteko Bazar Nagusiak onartutako aurrekontuan. Zuzendaritzak jakinarazi duenez, jaitsiera horren aurrean beharrezkoak izango diren errekurtsio, bilera eta azalpenak eskatuko ditu eta guztien berri emango da.



Abontzako zozketako sari nagusia banatuta

FELIX URZELAIK ETA CHONI REMESALEK ERAMAN DUTE ABONTZAKO JAIETAKO zozketan lehen saria (4.062 zenbakiari dagokiona) eta, beraz, Hoznayon (Kantabrian) 4 izarreko hotelean egun biko egonaldia (gogariak eta afariak barne eta SPA zirkuitua) egiteko moduan izango dira. Bigarren saria 235 zenbakiari egokitu zitzaion zozketan, baina oraindik ez da irabazlerik agertu.



F. CALBETÓN, 23
TEL. 943 53 05 26

Enkarguak etxera eramaten ditugu


Ogietan aukera zabala Ogi beroa
Tartak Pastelak Sanblasak

Arrautzak Esnea
Edariak Kafea

Prentsa Aldizkariak

Egunero: 07.30-21.00 Jaiegunetan: 07.30-20.00

Hemen, kalitatea



Sanjuan zoriotsuak!

Pitxiak
28 urte zuekin

Zuloagatarren, 9
Tfnoa. 943 20 17 40



Eibar K.E.-aren ekipamendua Perura

EGOIZIA GKEARI KAMISETA ETA FOBALLEAN JOKATZEKO bestelako batzuk oparitu dizkie Eibar K.E.-ak, Perur 2005. urteaz geroztik martxan dagoen Eibar-Piura kirol eskolakoei eramateko. Gergori Prietok, Eibar K.E.-aren izenean, martitzenean eman zizkion Egoiaziako Gloria Morari Peruraino eraman beharrekoak eta horiek Eibartik Peruraino eramatearen ardura, berriz, uztailaren 4an Perura, 3 hilabetez kirol-eskolan laguntzen jardutera joango den Adrián Garcia kooperanteak izango du.



Jaiek aldaketak eragingo dituzte autobusetan

EUSKOTRENEEN ESKU DAUDEN AUTOBUS ZERBITZUETAN ALDAKETAK IZANGO DIRA EGUNOTAN (barixakuan 20.00etan hasi eta martitzeneko 03.00ak bitartean). Autobusek urtean zehar asteburuetan egin ohi duten ibilbideari



jarraituko diote: Mallabia-Ondarroa lineakoak saihebidetik joango dira eta geldialdia Untzaga plazan, taxien parean egingo dute; gauza bera gertatuko da Eibar-Soraluze linean, baina aldaketak bakarrik asteleheneko zerbitzuei eragingo die; Ondarroa-Mallabia eta Soraluze-Eibar ibilbideetan ez da aldaketarik izango. Bestalde, barixaku eta martitzena bitartean ez da Udalbus zerbitzurik eskainiko (zerbitzua astelehenean goizean goiz berrezarriko dute). Informazio gehiagorako 902 543 210 telefonora deitu edo www.euskotren.es helbidera jo daiteke.

Eskola Jasangarriaren ziurtagiria Mogel-Isasiri


ESKOLAKO AGENDA 21 EGITASMOA "MODU BIKAIANEAN GARATZEAGATIK" jaso du Eibarko Mogel Isasi ikastetxeak Eskola Jasangarriaren ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Mogel Isasi ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak 2003az geroztik dihardute Eskolako Agenda 21 egitasmoa lantzen, ikasleen artean jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzen, Debegesa Garapen Agentzia eta Ingurugelaren laguntzarekin. Besteak beste, urte hauetan guztietan honako gai hauek landu dituzte programaren barruan: hondakinak, ura, Deba ibaia, energia, klima aldaketa, kontsumo iraunkorra eta mugikortasuna.

na. Ikastetxeak gaiari eskainitako bloga ere badauka (<http://mogelisasiag21.wordpress.com/>). Errekonozimendua hiru urterako da, eta hiru urte hauek gainditu ondoren, errekonozimendua berri egin beharko du ikastetxeak.



67.300 euro dendariei laguntzeko


MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATEAK, EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK eta Eibarko Dendarien Elkartek hiru hitzarmen sinatu zituzten martitzen eguerdian, horrela herriko merkaritza sustatzeko bideratuko dituzten diru-laguntzei bidea irekita. Aste honetan sinatutako hitzarmenek jasotako hiru diru-partidak batuta, dendariei laguntzeko ekimen eta bestelakoentzat 67.300 euro jasotzea lortu dute.



JOSEFA BOLLAR ARANGUENA

2012ko maiatzaren 15ean hil zen, 87 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Onda para Sanjuanetan!!

Iturri
 pintxo eta kaguelatxoak
 943 70 05 22



tabernaalbertotaberna
taberna OGITARTEKOAK
alberto SANDWICH-AK
 HANBURGESAK
 PINTXOAK
 TXANPIAK
 Juan Gisasola, 10 Tel. 943 043 000

guridi rugby
taberna




GORA SANJUANAK!!!

ETOR ZAITEZ EZAGUTZERA!

Ahara
 943 043782

- GOGARJAH / PINTXOAK
- EQUINOS HERRAJ / PLATERAK
- OGITARTEKOAK, HANBURGESAK, SANDWICHAK,

SANJUANAK
KARRIKAN

Ordea pista 200m DJ DEXPREVO
 Hurbirgunea 500m AFTER BEER
 Urtara pista 800m AFTER BEER

Dirig. Ikerretxe sorkin!



Errebal, 24
 943 70 13 23

Zatoz ondo pasatzera Sanjuanetan ere



Otaola etorbidea, 3 - atzea
 (Hiper Eroskiren alboan)


Iruki
 Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
 irukieibar@hotmail.com
 www.irukieibar.com



WOK 999


TEL. 943-121672 *jatetxea*



Otaola Etorbidea, 3 - 2. solairua
 (EROSKIREN ONDOAN)

ORDUTEGIA:
 bazkariak (12.00-16.30)
 afariak (20.00-24.00)

buffet eskura





Infantil mailako waterpolistek Gipuzkoako Liga eskuratu dute

EZ EDOZEIN MODURA GAINERA, AZKEN JARDUNALDIAN 4-29 IRABAZI BAITZIOTEN Fortuna Tximistarriri Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Denboraldi bikaina burutu dute Urbat Waterpolo Eskolakoek, Donostiako Nazioarteko Torneoan lortutako 4. postuarekin hasi eta ikasturte osoan erakutsitako joko bikainarekin jarraituz. Unai Mora eta Unai Lete izan dira atezainak, Izei Sologaitua, Mikel Sánchez, Jon Trebiño eta Jon Gontzal atzelariak, Unai Etxaburu, Igor Sanz eta Iñigo Nieto erdilariak, Alex Sarasua eta Eneko Trebiño aurrelariak eta Joseba Urkia buia.

San Juan tiro-pitxoi saria Arraten

EIBARKO TIRO AL VUELO ELKARTEAK ANTOLATUTAKO SAN JUAN SARIA jokatu da zapatuan Arrateko tiro zelaian, arratsaldeko 15.00etan hasita. Maila handiko sariak izango dira jokoan eta euskal zirkuitoko tiratzaile onenek hartuko dute parte klasikoa bihurtu den txapelketa horretan.


Hiru-txirloko San Juan Saria jokatu da bihar Asola-Berrin

EIBARKO BOLA-TOKIAREN 50. URTEURRENA DELA-ETA, HIRU-TXIRLOKO SAN JUAN sari nagusia antolatu dute bihar arratsalderako. Tiraldia 17.00etan hasiko da eta izena emateko bost euro ordaindu beharko da. Sariari dagokienez, irabazleak txapela eta trofeo eramango ditu, errekaudazioaren %40arekin; bigarrenak errekaudazioaren %30 jasoko du, txanpan botila batekin; 3.ak, 4.ak eta 5.enak errekaudazioaren %15, %10 eta %5 irabaziko dute eta 6.arentzat uste-kabeko saria izango da.



Mendi ikastaroak bi asteburuetarako

EKAINAREN AMAIERAREKIN BATERA, HAU DA, 30-EAN ETA UZTAILAREN 1-EAN, abentura eremuko eskalada ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Mendi Federazioak. Bertan honako edukiak emango dira: segurtasun teknikak, progresio teknikak, korapiloak, jardura planifikatuak eta, horiekin batera, aipamenak interpretatzea (soka-lagunen arteko komunikazioa eta norbera babesteko materiala). Bigarren ikastaroa uztailaren 14-15eko asteburuan eskainiko da, ertzetako eskalada lantzeko; trebakuntza ikastaro hori Atxarten emango da. Informazio gehiagorako, 943-461440 telefono zenbakira deitu dezakezue.



Ana Arostegui
ABOKATUA

- Familia
- Alokairuak
- Jabetza horizontala
- Senar-emazteak
- Herentziak

F. Calbetón, 19 - 1. ezk.
Tfnoa. eta Faxes: 943 70 12 06

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
C A D E N A
SER
104,0 FM

Ketesu 2010 *bulego eta kudeaketa materiala instalazio osoak eta materiala*
abontailak, sarrailak, inbaparrak, fibroirategiak...
bulego materiala enpresetan banatzen dugu
Euzkoaren kalea, 12
20000 Eibar
Tel: 943 219973 / 943 219974
Fax: 943 219988
Email: info@ketesu2010.com

EROSI MODA PUNTOAN

PUNTOAN JANZTEKO AUKERA:

- Aparteko kalitateko artileak: ingelesak, alemaniarrak, italiarrak, etb.
- Mertzeria fina
- Osagarriak: mangafandak, bufandak, poltsoak, txano bereziak, ...


Artile

WWW.ARTILEPUNTO.COM
INFO@ARTILEPUNTO.COM
Bidebarrieta, 18 943-207227

Debabarreneko IV. BTT martxan izena eman daiteke oraindik

MARTITZENEAN, HILAREN 26-AN, AMAITUKO DA UZ-TAILAREN 1-EAN, hurrengo domekan, egingo den Debabarreneko BTT martxan izena emateko epea. Probaren laugarren edizioa jokatu da aurtan eta parte-hartzaileek bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute: 25 kilometroa bata eta lu-

zeagoa -45 km- bestea, biak ere Karakate mendian egitekoak. Debegesako antolatzaileek 400 partaide inguru aurreikusiten dute goizeko 09.00etan hasiko den probarako eta irteera eta helmuga Debabarreneko BTT Zentroak Elgoibarko Mintxeta kirolgunean duen harrera puntuan kokatuko dira.



Zapatu goizean jokatuko dira San Juan pilota torneoko finalak

MARTITZENEAN JOKATU ZIREN ASTELENA FRONTOIAN BIGARREN FINALERDIAK eta hor erabaki ziren etzi jokatu-ko diren San Juan torneoko finalak. Jaialdia 10.30etan hasiko da Katedralean, benjamin mailako neurketarekin eta, ondoren, alebin mailako norgehiagoka ikusteko aukera izango da. Finalei dagokionez, lau eta erdiaren barruan Txurruka (22-14 irabazi zion Unamunzagari) eta Bengoetxea izango dira, nor baino (azken honek partidua du bezperan Urnietan eta, azken orduko baja bada, Egañak har-

tuko du bere tokia). Binakako finalean, bestalde, Arribillaga-Lanz bikoteak (22-4 egurtu zuen Lizarralde-Oion) Larreategi-Zubizarretaren aurka neurtuko ditu indarrak.

Amaitzear dagoen Udaberri torneoan, bestalde, Eibarko Klub Deportiboak hiru finalista ditu: Bengoetxeak bihar jokatu-ko du Urnietan Jauregi añorgatarraren aurka Gipuzkoako finala, Ruizek eskualdeko finala jokatu-ko du gazteen 2. mailan (honek ere bihar) eta Zubizarreta jubenilak etzi jokatu-ko du Zestean.

Errugbilari gazteenek denboraldiari agur esan zioten Unben

DOMEKA GOIZEAN EGUN HANDIA BIZI IZAN ZUTEN EIBAR RUGBY TALDEAREN ESKOLAKOEK Unben. Guraso, ume eta entrenatzaileen arteko jolasak eta zapi rugbyko partiduekin. Guzti horri garagardo karpan egindako herri-bazkariarekin eman zioten amaiera. Datorren irailaren 10ean Portalean, arratsaldeko 19.00etan, egingo duten bilerarekin hasiko dute hurrengo ikasturtea 9 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek; bertara guraso guztiek daude gonbidatuta.

Lau & Olan
SOLUCIONES INFORMATICAS

Tel. 943 120 350 Faxe. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)

San Agustin, 2

ASTIGARRAGA

Zezenbide, 4
943 53 00 66 www.lakett.com

Lakett

ESTETIKA
MASAJEA

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00. ZAPATUETAN: 09.00-13.00

Ondo pasan Sanjuanetan!
Eta etorri zaitez gure sekretua probatzera!!!
ZELULA ERREKUPERATZAILEA

NATUR HOUSE
Egunetik egunera zuegandik gertuago

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020
eibar@naturhouse.com

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.50etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.50etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.50, 12.50, 13.50, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.50, 14.50, 18.50 eta 20.50.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egutero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egutero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.50 eta 18.50.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.50 eta 20.50. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.50.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.55etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.



erakusketak

– Ekainaren 30era arte

INHAR MUTIOZABALen

"Ya no quedan Maharajás" argazki erakusketa.

PORTALEA TABERNAN.

PATXI BADIOLAren argazki erakusketa.

KLUB DEPORTIBOAN.

ALVARO ARROYOren argazki erakusketa.

EL AMBIGÚ TABERNAN.

– Uztailaren 7ra arte

ARTURO ANDRADE eskulturagile

eta margolariaren eta **JOSE LUIS RODRIGUEZ** grabatzaile artistikoaren artelanen erakusketa.

EL CORTE INGLÉS-EAN.

– Ekainaren 22tik 28ra arte

ESKULAN-TAILERRETAN ikasturtean egindakoen erakusketa.

IPURUAKO JUBILATU ETXEAN.

– Ekainaren 22tik uztailaren 7ra arte

JUAN SERRANO 1926-2011.

TOPALEKUAN.



farmaziak

21, eguena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

22, barixakua

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

23, zapatua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

24, domeka

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

25, astelehena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

26, martitzena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

27, eguaztana

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

28, eguena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

29, barixakua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

30, zapatua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

1, domeka

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

2, astelehena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

3, martitzena

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

4, eguaztana

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

5, eguena


EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

6, barixakua


EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JONE Penedo Aia, zapatuan zortzi urte egingo dozuz-eta. Besarkada haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LIHER, atzo bi urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MAIALEN, gaur urtebete egiten dozu-eta. Famelixa, guraso eta, batez be, Xabierren partez.




Zorionak, IURGI, bixar urtebete egingo dozulako. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, MARKEL Korta Fernández, eta muxu bana zure guraso, Ion eta Naiarari.




Zorionak, MARIA JOSE, gaur urtebete egiten dozu-eta. Zure guraso Jose eta Auraren partez.



Zorionak, JUGATX Elizegi Arriola, hillaren 25ian zortzi urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, ION, domekan urtiak egingo dozuzelako. Muxu haundi bat Nuriaren partez.




Zorionak, ALAITZ, gure printzesak zapatuan bost urte beteko ditte-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, ALAINE (hillaren 21ian) eta AMATXO (23an), urtiak egiten dozuez-eta. Famelixaren eta, batez be, Ametsen partez.



Zorionak, UNAX (maiatzaren 25ian), IRAIA (junixuaren 25ian) eta LEIRE (junixuaren 28xan), urtiak betetzen dozuez-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO, gaur urtebete egiten dozu-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, NORaren partez.

HILDAKOAK

- Sor M^a Dolores Ron Manso. 81 urte. 2012-VI-11.
- Josefa Bollar Aranguena. 87 urte. 2012-VI-15.
- Jesus Ron Manso. 85 urte. 2012-VI-16.
- Maria Etxeberria Zuloaga. 89 urte. 2012-VI-16.
- Eufemia Urkiaga Mugira. 94 urte. 2012-VI-18.
- Ernesto Riaño Aparicio. 57 urte. 2012-VI-18.
- Iñaki Zurutuza Apeirribai. 81 urte. 2012-VI-18.
- Pepita Osa Osoro. 89 urte. 2012-VI-19.
- Rosa Alzueta Mendibe. 89 urte. 2012-VI-19.

JAIOTAKOAK

- Daniel Rodríguez Rodríguez. 2012-VI-8.
- Malen Román Fernández. 2012-VI-9.
- Nora Arana Marcos. 2012-VI-11.
- Kloe Leturiondo Gisasola. 2012-VI-12.
- Naroba Gutiérrez Morcillo. 2012-VI-14.

SUDOKUA

		6			4			
	7	8	2	5			4	
					8	3		
				9		8		4
	8			7			9	
5		2		4				
		3	9					
	6			8	7	5	3	
			5			7		

DENBORAPASAK

6	8	7	3	2	4	5	1	9
2	9	4	7	5	1	3	8	6
3	5	1	9	6	8	2	7	4
7	8	3	8	4	9	1	5	2
8	2	5	1	3	6	7	4	9
4	1	6	2	7	5	8	9	3
8	7	9	6	1	2	4	3	5
5	3	2	4	8	7	8	6	1
1	4	6	5	8	3	9	2	7

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes ofizialeko pisua salgai Amanñan. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Rikardo.
– Pisua salgai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.

1.2. Errentan

– Cadizen apartamentua alokagai uztailean eta irailean, Sancti Petrin. 2 logela. Igerilekua. Padela. Tel. 644-546993.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-966611.
– Pisua alokagai Debako alamedan uztaile eta abuzturako. Berriztua. Prezio onean. Deitu 12.00etatik 17.00etara. Tel. 943-701394.
– Pisua alokagai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Pisua alokagai Deban, Guipuzcoano Plazan. 2 logela, egongela handia (sofa-ohearekin), 2 komun, terraza eta garajea. Igogailua. Guztiz berriztua. Uztaile eta abuzturako -edo urte osorako-. Tel. 619-237449. Conchi.
– Pisua hartuko nuke alokairuan ahalik eta bizkorren Eibarren. Urgentea. Tel. 646-662911.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Txomon garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 652-779800.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-238955.
– Mutila eskaintzen da gaeuz nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-525631.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 616-218076.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-515953.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-603029.
– Neska eskaintzen da kamarera edo jantokian jarduteko. 10 urteko esperientzia. Tel. 648-100546.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-632922.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 645-366850.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-966611.
– Batxilergoa egindako neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 622-824468.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-311385.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-423493.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 677-860971.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egi-

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

teko eta tabernetan jarduteko. Tel. 699-232823.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Interno edo orduka. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 664-111706.
– Neska eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 639-611454.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-431590.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Tel. 634-007292.
– Mutila eskaintzen da kamarero edo gidari-banatzaille jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 626-292587.
– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-861846.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-922727.
– Neska eskaintzen da udan kamarera jarduteko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-949471.

4.2. Langile bila

– Eibarko ileapaindegi batean ileapaintzaileak behar dira: 1. ofiziala eta 2. ofiziala. Tel. 637-528992.
– Sukaldaria eta garbitzaileak behar dira laster zabalduko den zentroan. Bidali curriculum eta argazkia: Eibarko 403 posta-kutxatila.
– Fisioterapeuta eta kiromasajista behar dira Eibarko ileapaindegi batean. Lan-giro bikaina. Tel. 678-674250.
– Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. 4 ordu. Tel. 678-386033.
– Sukaldaria behar da jatetxe batean. Esperientziarekin. Tel. 654-958684.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo atsegina. Adin guztiak. Tel. 645-488483.
– Magisteritzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrik ematen ditut. Tel. 651-503971.
– Euskara klaseak ematen ditut: azterketen prestatketa, EGA, Haberen mailak... Tel. 620-608065.
– Batxilergoa egindako neska eskaintzen da partikularrik emateko. Tel. 622-824468.
– Ordenagailua erabiltzen irakasten dut: internet, korreoa, web orriaren diseinua. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Thule markako autorako kajoia salgai, eusteko barrak barne. Prezio onean. Tel. 687-044379. Olatz.
– Erreproduzitzeko Fonestar-mahai bikoitza salgai. Taberna eta pub-etarako aproposa. Bozgorailu eta argiekin. Tel. 648-100546.
– Haririk gabeko inalanbrikoa (Panasonic markakoa, 20 euro) eta MP4 (erabili gabe, 25 euro) salgai. Tel. 943-120030.
– Bigarren eskuko Bugaboo Camaleón (patinete eta guzti) eta mendiko motxila (umea eramateko) salgai. Tel. 686-703907.
– Setter txakurra salgai. Oilagorretarako prestatua. Tel. 649-258913.
– Ehizarako eskopeta "superpuesta" salgai. Tel. 649-258913.
– Ohetik altxatzeko garabia salgai. Invacare markakoa. Oso berria. Ikusteko aukera. 650 euro. Tel. 943-203868.

6.2. Eman

– Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

6.4. Bestelakoak

– Egunero Eibartik Gasteizera lanera joateko autoa konpartituko nuke. Gasteizen 07.45etan sartu eta handik 14.45etan irtetzeko. Tel. 657-779650.
– Ordua edo terrenoa erosiko nuke Ermutik gertu. Tel. 627-833274.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547


CAPI

Zure edertasunaren zerbitzura!

AURPEGI ETA GORPUTZ RADIOFREKUENTZIA - KABITAZIOA - LASER DEPILAZIOA

OSTEOPATIA - REFLEXOLOGIA - KIROMASAJEA



MESOTERAPIA - GEL AZAKALAK - IA BETIRAKO ESMALTATUA



AURPEGIKO FOTOGAZTETZEA - MIKRODERMOABRASIOA

Gorputz tratamenduak

KOIKE GUTXITZEA
ZELULITIS GUTXITZEA
AZAL INDARTZEA



TEKNIKAK:

- Kabitazioa
- Radiofrekuentzia
- Laser lipolitikoa BERRIAII


35€ saioa
BONOAK
DAUDE

Masajeak

OSTEOPATIA
KIROMASAJEA
MASAJE
TERAPEUTIKOAK
REFLEXOLOGIA

Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurak)
- ...



Isasi 20 - behea
20600 EIBAR

Bulegoa: 943 20 17 33
Garajea: 943 17 34 99
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20
eibarbus@eibarbus.com

- Bertoko eta nazioarteko BIDAIK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

Eibarbus
autobusak



bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**